

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILPENERAKO ETA KUDEAKETARAKO EGITAMU GIDARIA



PARTAIDETZA-PROZESU ZIENTIFIKO-TEKNIKOA

2011



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



ingurumena.net

DOKUMENTUA:

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilpenerako eta Kudeaketarako Egitamu Gidaria. Partaidetza-prozesu zientifiko teknikoa

EDIZIO-DATA:

2011

JABEA:

Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.

www.euskadi.net/urdaibai

EDUKIA

Sarrera	3
Metodologia	4
MINTEGIETAN EGINDAKO EKARPENEN LABURPENA	5
BABES BEREZIKO EREMU ETA BABES EREMUEI BURUZKO MINTEGIA	5
Itsasadarra eta itsasertza.....	6
Erreka ertzak.....	8
Artadi kantauriarrak eta harizti atlantikoa	9
Geodibertsitatea.....	10
Arkeologia.....	11
Paisaia.....	12
Interes historiko-artistikoa duten eraikinak	13
NEKAZARITZARAKO ETA BASOGINTZARAKO INTERESA DUTEN EREMUEI, TURISMOARI ETA ENERGIARI BURUZKO MINTEGIA	14
Nekazal garrantziko eremuak.....	14
Basogintzarako interesa duten eremuak.....	16
Turismoa eta merkataritza	18
Industria eta energia	19
LURRALDE ANTOLAMENDUARI BURUZKO MINTEGIA	21
Gai orokorrak.....	21
Mugikortasuna	22
Hirigintza-Planeamenduak Antolatu beharreko eremuak (HPA) eta Sistema-eremuak	22
Landa-eremuetako guneak.....	23
Baserria.....	24
ALDERDI JURIDIKOEI BURUZKO MINTEGIA.....	25
Erreserben helburua.....	25
Lurzoruaren eta lurpeko araudia eta kudeaketa	26
Dokumentuen arteko koordinazioa.....	27
Kudeaketa-organoa	28

PROPOSAMENAK	29
BABES BEREZIKO EREMU ETA BABES EREMUEI BURUZKO MINTEGIA	29
Itsasadarra eta itsasertza.....	29
Erreka ertzak.....	30
Artadi kantauriarrak eta harizti atlantikoa	30
Geodibertsitatea.....	31
Arkeologia.....	31
Paisaia.....	31
Interes historiko-artistikoa duten eraikinak	32
NEKAZARITZARAKO ETA BASOGINTZARAKO INTERESA DUTEN EREMUEI, TURISMOARI ETA ENERGIARI BURUZKO MINTEGIA	32
Nekazal garrantziko eremuak.....	32
Basogintzarako interesa duten eremuak.....	33
Turismoa eta merkataritza	33
Industria eta energia	34
LURRALDEAREN ANTOLAMENDUARI BURUZKO MINTEGIA	34
Gai orokorrak.....	34
Mugikortasuna	34
Hirigintza-planeamenduak Antolatu beharreko eremuak (HPA) eta Sistema-eremuak	35
Landa-eremuko gunek.....	35
Baserria.....	36
ALDERDI JURIDIKOEI BURUZKO MINTEGIA.....	36
Erreserben helburua.....	36
Dokumentuen arteko koordinazioa.....	37

SARRERA

Erabakiak hartzerakoan parte hartzeko aukera izatea funtsezkoa da garapen iraunkorra eskuratzeko, ez soilik denboran iraungo duten konponbideak lortzeko, baita konponbide horiek zuzenak, bidezkoak eta gizarte osoaren onerakoak izango direla ziurtatzeko ere. Ingurumenaren babesa, batzuetan, debekuzko neurrietan oinarritzen da eta neurri horiek eragotzi egiten dute parte-hartzea eta, ondorioz, lurraldearen degradazioa eragin dezakete, hasieran aurreikusitako helburua bete gabe. Hori dela eta, beharrezkoa da ekintza publikoan eta elkarrizketa sozialean oinarritutako metodologiak martxan jartzea, eta horietan gizarte-eragile edo interes-talde guztiek esku hartzea: erakunde publiko eta pribatuak, zientzialariek, bertako herritarrek, elkarteek eta lurraldean eragina duten eragile guztiek.

MaB Programa eta UNESCOren Biosfera Erreserbak dira parte-hartzezko kudeaketaren eredu esanguratsuenetakoak. MaB programak eta Biosfera Erreserbek hiru eginkizun nagusi dituzte, kontserbazioa, garapen iraunkorra eta laguntza logistikoa, eta hiru funtzio horiek parte-hartzezko ereduari jarraituz kudeatze aldera, tokiko ekimena hartzen dute ardatz. Biosfera Erreserben estatutuetan adierazten da partaidetzaren aldeko hautu hori: Erreserben funtzioak zehazterakoan eta gauzatzerakoan, antolakuntza arloko zenbait xedapen aplikatu behar direla esaten da, horien bidez sektore esanguratsuen integrazioa eta parte-hartzea bideratzeko. Sektore horien artean leudeke, besteak beste, agintari publikoak, zientzialariak, tokiko komunitateak eta interes pribatuak. Hori lortzeko, partaidetzarako mekanismoak ezarri behar dira, tresna horien bidez gobernu-organoetara eta administrazioa helarazteko Biosfera Erreserban esku hartzen duten gizarteko sektore batzuen eta besteen ikuspuntua. Hori guztia aintzat harturik, Biosfera Erreserben kudeaketa ereduaren ikur eta bereizgarrietako bat da herritarren parte-hartzea.

Testuinguru horretan, garapen iraunkorra benetan lortuko bada eta Biosfera Erreserben helburuak beteko badira, ezinbestekoa da Urdaibaiko Biosfera Erreserban ere parte-hartzezko prozesu horiek gauzatzea.

UNESCOk 1984. urtean izendatu zuen Urdaibai biosfera-erreserba. Ondoren, 5/1989 Legea onartu zen, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteko eta Antolatzekoa, natura, zientzia eta ingurumen-hezkuntzaren aldetik duen interesa aintzat harturik, Erreserbako ekosistema guztiak babesteko eta horien lehengoratzeko bultzatzeko. Erabilerarako eta Kudeaketarako Egitamu Gidaria (EKEG) arauzko tresna, 1993an onartu zen, Urdaibai babesteko eta antolatzeko helburuak lortze aldera beharrezkoak diren tresnak ezartzeko. Dokumentuaren 9. artikuluan zehazten denez, Egitamua hamar urtean behin berritzeko konpromisoa hartu zen. 2003an zenbait aldaketa egin ziren: funtsean, kartografia zuzendu eta testuaren alderdi batzuk moldatu ziren. Azken moldaketa hori egin zenetik 10 urte betetzear, EKEG berritzeko prozesua abiatu zen 2011. urtean.

EKEGa berritzeko helburuen artean hiru dira parte-hartze berariaz aipatzen dutenak: mintegi zientifiko-teknikoak egitea, Lankidetza Kontseiluaren antolakuntza-egitura berrikustea eta herritarrek parte hartzeko prozesu bat egitea.

Horregatik ekin zaio berrikuntza-prozesuari, parte-hartzezko prozesu zientifiko-teknikoa martxan jarrita. Prozesu honen helburua etorkizuneko EKEGaren oinarri zientifikoak ezartzea da, eta horretarako, Urdaibaiko Egitamu Gidarian jorratzen diren gaitan adituak diren pertsonen ekarpenak baliatu nahi dira.

METODOLOGIA

Prozesuan zehar metodologia hau erabili zen: lehenik eta behin, adituak hautatu ziren EKEGan jorratzen diren gai bakoitzerako; ondoren, aditu horiek diagnosirako txosten bat egin zuten, eta idatzi horretan adierazi zuten beren iritziz indarrean den EKEGek zer hutsune eta gabezia dituen eta dokumentuan zer aldatu beharko litzatekeen. Horretarako, hasteko eta behin, hiru galdera hauek proposatu zitzaizkien:

- Zure jakintza-esparrutik, zer ikuspegi duzu Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren gaur egungo egoeraz?
- Zure ustez, zein dira gaur egungo EKEGen arazo eta gabezia nagusiak?
- Zure iritziz, zer aldaketa egin beharko litzateke egungo EKEGen araudian?

Hiru galdera horien erantzunetatik, 38 txosten jaso ziren guztira, bakoitza ikuskera eta ikuspuntu desberdinetik landua. Ondorengo mintegietan aztergai izan ziren gaiak ateratzeko eta zehazteko baliatu ziren txosten horiek. Txostenetan adierazitako iritziak egile bakoitzaren ardurapekoak dira.

Guztira 5 mintegi egin ziren eta horietan lehenbizikoa parte-hartze prozesu zientifiko-teknikoa aurkezteko baliatu zen. Bertan Francisco Díaz Pineda, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Ekologia katedradunaren eta German Alonso, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen partaidetzako zuzendariaren hitzaldiak entzuteko aukera izan genuen.

Aurkezpen mintegi horren ondoren beste lau egin ziren gaika antolatuta. Adituek aurrez landutako txostenetan bereizitako gaiak aztertu zituzten mintegi tematiko horietan. Eusko Jaurlaritzako, Bizkaiko Foru Aldundiko, Udaletako eta Estatuko Kostetako Mugatzeaz arduratzen diren teknikariak, unibertsitateko ikerlariak, elkarteetako kideak, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren kudeaketan esku hartzen duten funtsezko beste hainbat eragile gonbidatu ziren mintegi horietan parte hartzera.

Mintegien aurretik, txosten guztien sintesia egin zen, alde batetik, jardunaldiaren testuingurua azaltzeko eta, bestetik, eztabaida adituek bereizitako gaietara zuzentzeko. Gonbidatu guztiei eta bertara zitezkeen guztiei igorri zitzaizkien sintesi horiek, eta parte-hartze prozesurako propio egokitutako web-orrian ere eskegi ziren. Adituen txostenak eta intereseko beste dokumentu batzuk ere jarri ziren webgune horretan. Eginahal berezia egin zen jakintzaren arlo desberdinetako pertsonak eta hainbat jatorritakoek mintegi guztietan parte har zezaten, modu horretara diziplina anitzeko ikuspegia lortzeko eta jakintzaren eta kudeaketaren arteko lotura bultzatzeko.

Lehen mintegian EKEGaren alderdi juridikoak aztertu zituzten eta, besteak beste gai hauek izan zituzten hizpide: indarrean diren araudiak, zenbateraino ezarrita dauden eta batzuen eta besteen artean sortzen diren konkurrentziak, Patronatuak Erreserbaren kudeaketan duen eginkizuna... Guztira 55 lagunek hartu zuten parte lehen mintegi horretan.

Bigarren mintegian 75 lagunek hartu zuten parte eta gaur egungo EKEGeen jasotako Babes Bereziko Eremuak eta Babestutako Eremuak aztertu ziren. Besteak beste, eremu horiek kudeatzeko modua eta hobeto kontserbatzeko eta balioan jartzeko hartu beharreko neurriak izan ziren hizpide, gogoan hartuta UNESCOk Biosfera Erreserbetarako zehaztu duen zonifikaziora egokitu beharra dagoela Urdaibai. Hain zuzen, hiru eremu zehazten dira zonifikazio berezi horretan: nukleo, tanpoi eta trantsizio eremuak. Erakundeen arteko eta araudien arteko koordinazioa falta dela ere nabarmendu zen bigarren jardunaldi horretan, eta arlo horietako batzuetarako Lurralde Ekintzarako Egitamuk garatu behar direla ere azpimarratu zen.

Ondoren, Nekazaritzarako eta Basogintzarako Interesekoak diren Eremuak, Turismoa, Merkataritza, Industria eta Energiari buruzko mintegia izan zen 58 lagunen partaidetzarekin. Lehen sektoreak duen garrantzia azpimarratu zen mintegi hartan, eta egun arriskuan diren betidaniko jardura horiek indartzeko bideak aztertu ziren, bai eta basoak ustiatzeko eredu iraunkorra eta Biosfera Erreserbaren ezaugarrien arabera bultzatzeko formulak ere. Energia-eredu iraunkorra ezartzeko beharraz ere jardun zen, bai eta ingurunea errespetatuko duen industria-egitura bultzatzeko premiaz ere.

Azkenik, lurraldearen, landa-eremuetako herrien eta baserriaren antolamenduari buruzko mintegian besteren artean gai hauek jorratu ziren: erakundeen eta araudien arteko koordinazioaren arazoa, hiriguneen garapena, mugikortasuna eta landa-eremuetako herrien eta baserrien etorkizuna. Gaikako azken mintegi horretan 63 lagunek hartu zuten parte.

Gaikako mintegiak bukatu ondoren, aukera eman zitzaizen gonbidatuei posta elektronikoaren bidez edo martxan den web-orriaren bidez ekarpenak edo proposamenak egiten jarraitzeko. Era berean, sintesirako azken mintegi bat ere egin zen. Jardunaldi hartan atariko ondorioak azaldu ziren eta aukera eman zitzaizen bertaratuei mintegietan mamitutako ondorioen gainean ekarpenak eta zehaztapenak egiteko, edo nork bere iritzia azaltzeko.

Hala, aurretiazko txostenetan jasotako ekarpen eta proposamen guztiak bildu, mintegietan eta ondorengo ekarpenetan jasotakoak gehitu, eta parte-hartze prozesu zientifiko-teknikoan aztertutako gai guztien sintesia egin zen. Sintesi horretatik hainbat proposamen zehatz atera ziren, eta, hain zuzen, horietatik baliatu dira Urdaibain, babes bereziko eremuetan, babestutako eremuetan eta Erreserbaren gainerako eremuetan balizko neurri horiek zer eragin izango luketen aztertzeko. Azterketa hori egiteko, beste behin, prozesuan parte hartu duen eragile guztien laguntza izan da. Horien parte-hartzerik eta dedikaziorik gabe ezinezkoa zatekeen prozesu hau aurrera eramatea.

MINTEGIETAN EGINDAKO EKARPENEN LABURPENA

BABES BEREZIKO EREMU ETA BABES EREMUEI BURUZKO MINTEGIA

Eremu hauei buruz indarrean den ideia nagusia lurraldearen kudeaketa osoa egin beharra dagoela da, hori da Urdaibai Biosfera Erreserba modu iraunkorrean kudeatu ahal izateko berme bakarra. EKEGa Lurraldea Antolatze Plangintza Integrala bihurtu behar da, naturaren kontserbazioa, garapen iraunkorra, ingurumen-hezkuntza eta ikerketa, kudeaketaren oinarri izanik. Ingurumenaren aldagaiak plangintza horren ardatzetako bat izan behar du eta, horretarako, beharrezkoa da testuan zenbait kontzeptu eta irizpide jasotzea, naturaren kontserbazioari eta ingurumen-baliabideen erabilera iraunkorrari loturiko helburu nagusiak betetzen laguntzeko. Hauek dira kontzeptu horietako batzuk: emari ekologikoa, korridore ekologikoa, espezie mehatxatuak, kutsadura akustikoa, argi-kutsadura...

Funtsezkoa da Urdaibai, Biosfera Erreserben egiturara homologatzea; horrela eskatzen du UNESCOren MaB Programak eta Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legeak. Horrenbestez, beharrezkoa da kalifikazio hauek EKEGean jasotzea: nukleo, tanpoi eta trantsizio guneak. Urdaibaiko babes bereziko eremuak oro har bat datoz nukleo guneekin, baina adierazi egin behar da baliokidetasun hori. Gainera, proposamena da Urdaibaiko ibai-sarea nukleo gunean sartzea, sare horrek garrantzi handia baitu.

Bestalde, funtsezkotzat jo da lurraldean eskumena duten administrazioen koordinazioa hobetzea, era horretara kudeaketarako araudiaren praktika errazteko. Egun indarrean diren araudiak eta garatzen ari direnek bat etorri behar dute funtsezko alderdietan eta elkarren osagarri izan behar dute eta, zenbait kasutan, lehentasunak ezarri behar dira arauzko dokumentu horien artean. Ezinbestekotzat jo da

aurreko EKEGean aurreikusi eta oraindik garatu gabeko Lurralde Ekintzarako Egitamuak (LEE) garatzea, besteak beste, itsasadarren eta itsasertzaren LEE edota ibai-sarearena.

Kudeaketa errazteko interesgarria litzateke bat etortzea Erreserbaren mugak eta Busturialdea eskualdekoak, edo eskualdea osatzen duten udalerri guztien eremua Urdaibai Biosfera Erreserban biltzea; izan ere, gaur egun Oka ibaiaren arro hidrografikoak ezartzen du muga, eta Biosfera Erreserbatik kanpo geratzen dira Busturialdeko 22 udalerrien zenbait zati. Zeregin konplexua da, ordea, arestian aipatutakoa, legean aldaketak egin beharko liratekeelako, baina nolana ere, behar-beharrezkoa da udal-politikak eta udalez gaindikoak koordinatzeko ahalegina egitea.

Ezinbestekoa da, orobat, Biosfera Erreserbaren kudeaketarekin loturiko hainbat alderdiri buruz (ondare naturala eta kulturala, prozesuak, kultura, ekonomia, soziologia, lurralde-antolamendua, etab.) ikerketa zientifikoa bultzatzea, orain arteko ezaguerak eta sortuko direnak zuzenean Biosfera Erreserbaren kudeaketan aplikatzeko. Helburu horri begira, aholkularitza iraunkorrerako bideak zehaztu beharko lirateke.

Erreserbaren egoerari buruzko jarraipen egokia egingo bada, premiazkoa da aldian-aldian diagnostikoak egitea; hori da mintegian azpimarratzen diren zeharkako beste puntuetako bat. Era berean, oso garrantzitsutzat jo da ingurumen zaintzarako programa bat ezartzea ere, hartutako neurri guztiak betetzen direla zaintzeko.

ITSASADARRA ETA ITSASERTZA

Azken urteotan, hondatzen joan da hegazti-komunitateak mantentzeko beharrezkoa den habitata eta, horren ondorioz, okerrera egin du hegazti-faunaren egoerak. Besteak beste, eremu horietan egiten diren aisialdiko jarduerak askoren ondorioz ari dira hondatzen habitat horiek. Hauek dira urteko zenbait unetan egiten diren jardueren artean faunarentzat kaltegarritzat jo direnak: eskalada, nabigazioa, arrantza, izaro uhartean sartzea eta, zenbait kasutan, hegaztiak behatzeko egiten diren zidorrak; izan ere, espezie batzuk oso sentiberak dira horrelako jardunekiko. Hori dela eta, beharrezkoa da eremuak mugatzea, jarduera horiek hartzeko duten gaitasuna irizpidetzat hartuta.

Altuera txikian, behe aldean egiten diren hegaldiak ere nabarmen asaldutzen dute Urdaibaiko erdiguneak erabiltzen dituen hegazti-faunak. Helikoptero, hegazkin txiki eta ultrarinen hegaldiak eragozpen handiak sortzen dituzte; horrela egiaztatu ahal izan da, adibidez, mokozabalari eginiko jarraipenean. Eragozpen horiek saihesteko aire-nabigazioa arautu egin behar da; hala, gutxienez 500 metroko altueran egin beharko lukete hegan itsasadarreko, itsasertzeko eta artadi kantauriarreko babes bereziko eremuen gainean.

Horrez gainera, mintegiko partaideen ustea da hainbat ekintza egin behar direla itsasadarrean eta, besteak beste, arautu egin behar dela kirol-ontzien estuarioko zirkulazioa. Ahalik eta gehien mugatu behar da itsasontzi motordunen zirkulazioa estuarioaren erdigunean, hegazti migratzaile asko hor geratzen baitira, besteak beste, negualdia Urdaibain igarotzen dutenak. Egokitzen jotzen dute itsasontzi mota guztien zirkulazioa (motordunena eta besteena) derrigorrean kanal nagusiaren erdira mugatzea. Eta motordunek, Busturipunte eta Kanalako antzinako ontziolaren arteko lerrotik gorako uretan ibiltzeko, nahitaez horretarako baimena behar izatea.

Orobat, beharrezkoa da estuarioaren eremuan ainguralekuak antolatzea; izan ere, ez dago araudirik ainguratze kolektiboen arloan eta horrek arazoak sortzen ditu. Beraz, eremua areago ez degradatzeko eta erabiltzaileen segurtasunerako, beharrezkoa da arazo hori erregulatzeko araudi zehatz bat ezartzea. Halaber, beharrezkoa da zenbait erabilera erregulatzeko, aisialdiko jarduerak adibidez, eta, zehazki, parapente, kometa, kitesurf, windsurf eta antzeko gailuen beharra duten jarduerak. Araudi horrekin

batera ingurumen-zaintzako programa bat ere ezarri beharko litzateke, arauak betetzen direla egiaztatzeko.

Bestalde, lurren higadurak eragin kaltegarriak sortzen ditu itsasadarrean. Ibaiaren arroan egiten diren basoko jarduerak eragiten dute higadura hori eta, horrenbestez, behar den moduan arautu beharko lirateke eremu horietan espezie aloktonoekin egiten diren basoko jarduerak.

Landare inbaditzaileen arazoa dela eta, beharrezkotzat jo da desagerrarazi beharreko espezie aloktono inbaditzaileen zerrenda egitea, bai landareena eta bai animaliena (Panpa belarra, aindurrina, bisoi amerikarra, tigre muskuilua, etab.). Espezie horiek erabat debekatu behar dira Urdaibaiko eremuan, eta galarazi egin behar da haien erabilera eta salerosketa. Paduretako landare-espezie inbaditzaileei dagokienez, landare horiek ebakitzeaz eta erauzteaz gainera, beste irtenbide bat izan daiteke marea-mailaren barneko eremuetan dike eta muna guztiak edo batzuk behintzat kentzea; izan ere, marea sartzeak ez lieke espezie inbaditzaile horiei hazten utziko. Neurri hori hartzeko, lurzorua kalifikazioa aldatu beharko litzateke.

Indargetze-guneak zabaltzea neurri oso garrantzitsua litzateke hegazti-fauna babesteko. Hain zuzen, era horretako neurriak biltzen ditu estuarioko eta itsasertzeko KBEak kontserbatzeko neurriak jasotzen dituen dokumentuak. Aurki onartuko da aipatutako dokumentu hori. Alde horretatik, arriskuan dauden espezieak babesteko neurriak Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) osora zabalduko dira. Urdaibaiko antolaketan eta kudeaketan koherentzia gordeko bada, Urdaibai aldeko KBE eta HBBE eremuen Kudeaketa Plantzat hartu beharko dira erdiguneetako eta horien tanpoi-guneetako Lurralde Ekintzarako Egitamuak (EKEG garatzeko tresnak), baita ibai-sarekoak ere (P.4 eremua).

Itsasadarraren eremuko tanpoi-gunea babesteko, Itsas-lehorreko Jabari Publikoa babes zorpeko aldea jaso behar da EKEG berrian. Gaur egun, mugatze ia behin betikoa du eremu horrek (2003. urteko EKEGean Itsas-lehorreko jabebari publikoaren lerroa jaso zen, baino tarte batzuk aurka-egiteak zituzten). Informazio hori funtsezkoa izango da kudeatzaileentzat; izan ere, EKEGaren P.4 eremua eta babes-zorpeko aldea ez datoz bat, baina biak elkarren osagarri dira eta, horrela, babestuta geratuko litzateke itsasadarraren tanpoi-gunea.

Dragatzeak dira itsasadarrean eragin handia duen beste fenomenoetako bat: dragatze horiek ahalik eta gehien murriztu beharko lirateke eta kanalaren meandro forma duen ibilbideari jarraituz egin beharko lirateke. Ontzioletako jarduerak kanal zuzenak bilatu izan ditu betidanik itsasontziak itsaso zabalera eramateko. Jardun horrek aldatu egin du estuarioaren morfologia eta hidraulika, baita sedimentazio-dinamika ere. Izan ere, mareen eraginez sortutako korronteek eratzen dituzten forma bihurriak errespetatzen direnean sortzen da egoerarik egonkorrena. Egokiena litzateke dragatzeak erabat saihestea, baina horretarako ere aldatu egin beharko litzateke 5/89 Legea.

Bestalde, oso interesgarritzat jotzen da ekosistema berezien lehengoratzeta egitea eta, horien artean, nabarmentzekoa da Laidako hondartzako dunak finkatzeko eta berreskuratzeko proiektuaren garrantzia. Alabaina, eztabaida piztu da hezegune artifizialak sortzeari buruz; Gautegiz-Arteagan sortu den Oruetako aintzira artifizialari buruz, esaterako. Alde batetik, neurri horrek mesede egin dio hegazti-faunaren presentziari eta ingurumen-hezkuntzari (Urdaibain sortu den Elai Bird Center), baina, bestetik, sortu aurretik kontserbazio-egoera onean zegoen padura bat desagertzea ekarri du. Ekimen horiek interesgarriak dira estuarioan hondatuta dauden eremuetan, bai eta marearen eraginetik isolatuta, mareak berriro ere azpian hartzeko aukerarik gabe, dauden eremuetan, hala nola itsasadarraren bi ertzetan dauden zenbait ingurutan. Nolanahi dela ere, naturalizaziorako beste jardun batzuekin uztartu beharko lirateke era horretako jarduerak.

Beste jarduera eta erabilera mota batzuk arautzerakoan, berriz, ez datoz bat indarrean diren EKEG eta PADAS (Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitaraua) planak. Akuikultura, esaterako, aintzat hartzen da PADAS programan, baina galarazi egiten da EKEGean. Guztiz premiazkoa da itsasadarreko Lurralde Ekintzarako Egitamua (LEE) garatzea eta estuarioko eta itsasertzeko KBE Kudeatzeko Plana jasotzea (zonifikazioan zenbait aldaketa behar ditu plan horrek), bai eta Euskal Herriko Barneko Arroen Plan Hidrologikoak (PHCCII) xedatutakoa ere. Horrez gainera, itsasadarreko ehizabarrutia, itsasertza eta Urdaibaiko artadi kantaurreak ere jaso behar dira EKEGean, bai artikuluetan eta bai kartografian. Urdaibaiko nukleo guneak kontserbatzeko kudeaketa-neurriak eta babes handiagoa dakartza horrek.

Estuarioak modu osoan kudeatzeko agiri erabilgarriak ere landu beharko lirateke, eta, dokumentu horietan, besteak beste, ur-masak kudeaketarako unitate modura jaso beharko lirateke, eta eremuak jarduerak hartzeko gaitasunaren arabera mugatu. Horrelako dokumentuak badira beste herrialde batzuetan.

EKEG berriak, halaber, aintzat hartu behar du klima-aldaketaren faktoreak ekosistema eta espezieengan duen eragina, eta neurriak landu behar ditu arazo hori arintzeko eta klima-aldaketa horretara egokitzeko.

Ikerketari eta ingurumen hezkuntzari dagokionez, berriz, beharrezkoa da ikerketa sustatzea itsasadarreko eta itsasertzeko ekosistemen funtzionamendu osoaren berri hobeto izateko; Ikerketa Aplikatu Plan berrian garatuko dira gero ezaguera horiek. Era berean, behatokiak egokitu eta bultzatu egin behar dira, interpretazio-panelak edota natura behatzeko eta interpretatzeko oinezkoentzako zidorrak, eta Ingurumeneko Hezkuntza Plana eguneratu egin behar da.

ERREKA ERTZAK

Urdaibaiko ibai-sareko ibai eta erreka gehienek uren kalitatea eskasa da. Gainera, landa-guneetan ez ezik, hiriguneetan ere errekaetako ertzak babestu behar dira. Beharrezkoa da ibai-sarearen Lurralde Ekintzarako Egitamua (LEE) garatzea.

Urdaibaiko ibai-sarea oso garrantzitsua da eta, horrenbestez, nukleo gune moduan kalifikatu beharko litzateke EKEG berrian. Nukleo gune horren inguruan tanpoi gune bat zehaztea ekarriko luke horrek. Alde horretatik, proposamena da Urdaibaiko ibai-sarearen Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) Kudeaketa Plana EKEG berrian jasotzea, eta hor biltzea ibaien goi-ibarreko basoak; izan ere, arroaren goi-ibarreko basoak babestea funtsezkoa da ibai-arroak modu egokian funtzionatzeko. Beste zonifikazio bat ezarri beharko da, eta hor zehaztu beharko dira eremu bakoitzean baimendutako erabilerak. Babes bereziko eremuak mugarriztatu behar dira, 5/89 Legean zehaztu eta Plan Hidrologikoan jasotzen den moduan eta, beraz, lan hori ibai-sarean egin liteke modu esperimentalean. Ekosistemak eta horien funtzionamendua kontserbatzea izan behar da helburua, ekosistema horiek ez baitira elementu isolatuak. Tresna egokien bat bilatu behar da ibaiertzeko basoak (haltzadiak eta lizardiak) babesteko eta ibaiak oso-osorik ekosistema moduan kontserbatzeko. Prebentzio-neurriak hartu behar dira ibai eta errekaetakoan egiten diren lan eta jardueren aurrean, eta landaretza riparioa lehengoratzeko eta hobetzeko ekintzak bultzatu. Kontuan izan behar da arroetako oztopoek iragazkor izan behar dutela, era horretara ibaien loturak hobetu ahal izateko. Hazkuntza azkarra duten baso-landaketen eragina ere saihestu behar da, landaketa horiek ez direlako egokiak biodibertsitatearako, bereziki modu oldarkorrean kudeatzen badira eta, espeziearen arabera, ur-emia murriztu dezaketelako.

Ibaietako KBEaren Kudeaketa Planeko irizpideak eta Euskal Herriko Barneko Arroen Plan Hidrologiko berrian (PHCCII) jasotakoak uztartu beharko lituzke EKEG berriak.

Ikerketari eta monitarizazioari dagokionez, ikerketa bultzatu beharko litzateke arlo honetan, ekologiararen eta hidrologiararen ikuspegitik; izan ere, gaur egun ez dago horren gaineko azterketarik, eta jarraipen estazio gehiago jarri beharko lirateke (egun, ur-emaria neurtzeko estazio bakarra dago, Muxikan hain zuzen, zenbait parametro modu iraunkorrean jasotzeko). Era berean, diagnosiak egiteko premia hauteman da, adibidez, gutxieneko emari ekologikoak zehazteko. Azaleko ur-masen morfologia zer-nola aldatu den zehazteko katalogo bat ere egin behar da.

Kontserbazioarekin lotura duten arazoez gainera, eskualdean izan badira hornidurarekin eta saneamendurekin loturiko zenbait arazo, eta horiek ere aztertu egin behar dira. Beharrezkoa da hornidurari buruzko LEE bat, eta hor jaso beharko lirateke egun dauden ur-bilketa puntuen babes-perimetroak eta zehaztu beharko lirateke falta direnak. Premiazkoa da Gernikako akuiferoaren babes-perimetroa EKEGen jasotzea ere, oso garrantzitsua delako horniduraren aldetik eta balio geologikoaren aldetik, eta gauza bera egin behar da Urdaibai Biosfera Erreserbako beste akuifero batzuekin ere. Gaur egun, Gernikako akuiferoaren egoera nahiko txarra da ingurumen aldetik, kutsatzeko eta gehiegizko ustiapena jasateko arriskuan baitago iturburu hori. Hirietako eta industrietako hondakinen arazoari dagokionez, Urdaibaiko Saneamendu LEEa gauzatu beharko litzateke, eta PHCCIIak ezarritako jarduera eta arauak heldu. Bestalde, beharrezkotzat jo da saneamendurako egitura berriak ezartzea eta aurreko saneamendu-planetan jaso gabeko kutsadura-iturriak identifikatzea, era horretara, saneamendu egokia bermatze aldera beharrezkoak diren neurriak ezartzeko.

Uholde-arriskuari dagokionez, 2007ko Uholdeen Prebentziorako Plan Osoaren aurreikuspena jaso behar da.

ARTADI KANTAUARIARRAK ETA HARIZTI ATLANTIKOA

Biodibertsitate aldetik oso garrantzitsuak direnez, artadi kantauriarrak eta harizti atlantikoak kontserbatu eta lehengoratu beharreko baso-ekosistemak dira Urdaibain. Nabarmenezkoa da artadiaren oinarrian dagoen karstak zer garrantzi duen, eta moduak ez ezik prozesuak ere kudeatzeko beharra. Oso garrantzitsua da, orobat, uraren zirkulazioa eta, beraz, uraren kalitatea babesteko, eginahala egin behar da haitzulo eta ibarbideetan ez hondakinik jaurtitzeko.

Baso horiek kudeatzeko moduak lurraldearen funtzio-aniztasuna lortzea izan behar du ardatz, era horretara ekosistema erresilienteak izateko; inpaktuen aurrean lehengoratzeko gaitasuna izango duten ekosistemak izateko. Eragin kaltegarriei aurre hartzea da garrantzitsua, eta horretara bideratutako jarduerak lehenetsi behar dira; baina, nolanahi dela ere, eragin kaltegarri horiek arintzeko eta lehengoratzeko neurriak ere hartu behar dira. Komeni da lurraldearen funtzio-aniztasuna bultzatzea eta ekosistemen zerbitzuak kontzeptua aintzat hartzea. Horri begira, lurjabeek ekosistemak kontserbatzeko zeregin horretan esku hartzea lortu behar da. Gaur egun, artadien lurjabe gehienek ez dute inolako kudeaketarik egiten, baso horien erabilera mugatuta dutelako. Inolako kudeaketa-neurririk ez hartzeak, ordea, mendian suteak sortzeko arrisku handia ekar dezake. Hori konpontzeko bide bat izan liteke jabeek inolabaiteko kalte-ordainen bat ematea kudeaketa egoki bat egin dezaten. KBE eta ZEPA eremuak kudeatzeko agirian debekatu egiten da babestutako eremuetan egurrik ateratzea, ezpada norberak erabiltzeko eta betiere salerosteko inolako asmorik gabe; horrez gainera, basoak zaintzeko lanak baimenduta daude zuhaitz-masak kontserbatzeko eta babesteko badira.

Artadiaren eremu batzuetan eukaliptoaren inbasioa gertatzen da, baita itsasertzeko zonalde batzuetan ere. Horrelako egoerak kontrolatzeko galarazi egin beharko litzateke artadi kantauriarra hazten den eremuetan (P.5) eukalipto landatzea, eta existitzen diren landaketak mantentzea; neurri bera hartu beharko litzateke itsasadarreko eta itsasertzeko indargetze-eremuetan ere (P.4).

Erakundeek lursailak erostea da artadi kantaurrearra kontserbatzeko eta lehengoratzeko neurrietako bat. Alabaina, lursailak erostea, lehendik ere artadien LEEan jasotako neurria, ez da arrakastatsua izan eta, hortaz, beste ekintza batzuk bultzatu beharko dira edota aurrez hartutako neurriak indarrean jartzeko beste modu batzuk bilatu beharko dira. Hauek dira, eraginkortasunari erreparatuta, kontuan hartzeko beste aukera batzuk lurraldea zaintzeagatik eta ingurumen-zerbitzuengatik ordaintzea dira. Basozaintzarako gaur egungo dirulaguntzen sistema bideratzeko ahalegina ere egin daiteke, eta basoak beste era batera erabiltzera bidera daitezke laguntza horiek; basoak lehengoratzen laguntzeko, hain zuzen. Beharrezkotzat jo da lursailak erosteko eta kalte-ordainak emateko EKEGean aurrekontu bat bideratzea.

Basoak kudeatzeko moduari dagokionez, mintegian esku hartu dutenen iritzia da ez kudeatzeak mesede egiten diola biodibertsitateari, baina, aitzitik, erregaitasun-arazoak sor ditzakeela. Hori dela eta, ahalegina egin beharko da bi alderdiak orekatzeko. Era berean, basoen lehengoratzea berez gerta dadin, batzuk betiko erabilerak baimentzearen aldekoak dira eta beste batzuk kontrakoak. Kudeaketaren xedeak lurraldearen funtzio-aniztasuna sustatzea izan behar du, eta eragin kaltegarrien prebentzioan egin behar du indar handiagoa, arazoen arintzean eta lehengoratzean baino.

Urdaibaiko harizti atlantikoak interes handikoak dira ekologia aldetik, baina haien gaur egungo egoera ez da oso ona (sakabanatuta daude, zatikatuta, eta haien azalera %7tik beherakoa da, nahiz eta lurralde ia osoaren (%80) landaredi potentziala izan). Komeni da harizti atlantikoaren azalera handitzea lurraldearen %20 hartzeraino, gaur egun baso horiek oso zatikatuta baitaude (proposamen hori jaso zen aurreko EKEGen, baina ez da gauzatu). Baso-mota hori oso garrantzitsua izan da ibai-sareko eta artadietako KBEak zabaltzea erabakitzeko, eta horrek are garrantzitsuago bihurtzen du harizti atlantikoa.

Zonifikazioari dagokionez, EKEG berrian babes bereziko eremuak zabaldu beharko lirateke; izan ere, Urdaibaiko Legeak babes bereziko eremuen gutxieneko batzuk ezartzen ditu, baina EKEGean bada modua gutxieneko horiek aldatzeko. KBEak kontserbatzeko neurriak jaso beharko lirateke EKEGean, eta artadi kantaurrearren LEEekin osatu beharko lirateke neurri horiek. Kontuan hartuta artadi kantaurrearren eta haien babes-eremuen LEE indarrean dela, Urdaibaiko artadi kantaurrearren KBEren Kudeaketa Plantzat har daiteke LEE hori, egoki iritzitako hobekuntzak eginda.

Horrenbestez, KBEren mugetan bildu beharko dira zonifikazio berriaren nukleo eta tanpoi gunek.

Bestalde, Urdaibaiko lurralde osoa, definizioz (3/98 Legea), Ingurumen Aldetik Sentikorrak diren eremuen katalogoan sartu beharko litzateke (oraindik katalogo hori onartu ez bada ere), eta horrek eragina izango du, noski, Ingurumen Eraginaren Ebaluazioari loturiko gaitetan. Hori dela eta, *Ingurumen aldetik Eremu Sentikorra* kontzeptua aintzat hartu beharko da (Urdaibaiko Biosfera Erreserba osoari dagokio), eta indarrean den legedian ingurumen eraginaren ebaluazioa egiteko aurreikusten diren tresnak ere jaso beharko dira EKEGean.

GEODIBERTSITATEA

EKEGaren helburu nagusiak garapen iraunkorrerantz bideratzeko ondare naturala modu osoan balioan jartzea izan behar du. Alde horretatik, beharrezkoa da geodibertsitate kontzeptua dokumentu berrian gehitzea, eta biodibertsitate kontzeptuarekin sinergia osagarriak sortzea; izan ere, ekosistemaren osagaietako bat da geologia; hain zuzen, espezieen eta prozesu biologikoen oinarria eta sostengua da. Horrenbestez, EKEGaren helburuen artean jaso behar da erreserbaren ondare geologikoa babestea, kontserbatzea eta kudeatzea, eta, hortaz, neurriak hartu beharko dira ondare hori balioan jartzeko eta kontserbatzeko. Horretarako, Interes Geologikoko Eremuak (IGE) ere babestu beharko dira. Eta, hain zuzen, izan bada IGEen inbentario bat, non, besteak beste, Ereñoko harrobia, estuarioa, Laidako

hondartza, Ogoño eta itsasertzeko labarrak aurkitzen diren. Era berean, Geodibertsitatearen Estrategian zehaztutakoa ere jaso beharko du EKEG berriak.

IGEak sakabanatuta daude Urdaibaiko geografia zabalean, eta eremu horietako batzuk babestuta daude jada. IGE-en inbentarioak zehazten du eremu bakoitzak zer babes behar duen eta, kontuan harturik gehienak aurrez babestutako eremuetan daudela, EKEGaren helburu behinena toki horiek balioan jartzea izango da. Lehendik babestuta ez dauden lekuak P7 kalifikazioan sar daitezke, edo dokumentu berriak jasoko dituen azpikategoria berrietan. Katalogo edo inbentarioen bidez babesteko aukera ere hor da.

Hainbat alderdi daude balioan jartzeko: paleontologikoak, erregistroa sedimentarioak eta paleoklimatikoak (haitzuloak, estuarioa) eta eraikuntzan erabilitako apaindurazko harriak, baita Gernikako akuiferoa bera ere. Kultura, arkeologia edo biodibertsitate aldetik ere izan dezakete balioa leku horiek.

Beharrezkoa da, geodibertsitateari begira, gaikako kartografia zehatz bat egitea, arlo horren kudeaketa errazteko eta lurraldearen beste balio batzuekin integratzeko.

Hezkuntza eta dibulgazioa ere bultzatu behar dira; izan ere, Lurraren historiako erregistrotzat har daiteke Urdaibai, denboraren joanean gertatu diren aldaketa globalak islatzen baitira erregistro horretan. Baliabide horiek aukera didaktiko asko eskaintzen dituzte; adibidez, hezkuntzako hainbat unitate sor litezke baliabideen erauzketari buruz meatzeetako jardueraren eta lehengoratzte-jardueren gainean. IGEetako batzuk baliabide turistiko modura ere erabil daitezke, eremu horien elementu geologikoak deskribatzeko eta balioesteko.

Prozesuei eta prozesu horien berezko bilakaerari buruzko ikerketa sustatzea ere garrantzitsua da, horiek babesteko (karsta, estuarioa, itsasertza...) eta, alde horretatik, egokia litzateke ikerketarako beste ildo batzuk gehitzea.

ARKEOLOGIA

Esan gabe doa aztarnategi arkeologikoak babestu behar direla, eta horrela zehazten da Urdaibaiko Legean ere. Babes horren gutxienekoak zehaztuta daude, orobat, Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arau orokorretan eta Babestutako Ondarearen Katalogoan eta horien legezko aginduetan. Alabaina, komeni da Legean jasotako elementuak berrikustea; izan ere, jada egiaztatu da batzuk ez direla aztarnategi arkeologikoak; eta, aitzitik, badira Legean jaso gabeko zenbait aztarnategi arkeologiko. Beraz, beharrezkoa da aztarnategi arkeologikoak berriro sailkatzea (zuzendu egin behar da eranskina) eta, horrenbestez, intereseko baliorik ez dutenak, behin toki horiek zientifikoki aztertu ondoren, aparteko kalifikazio batean bildu beharko dira. Arkeologia aldetik balio handiena duten historiaurreko kokaguneetan egin beharko da ahalegin handiena, eta horretarako, lursail horien jabeen mugak eta kargak gutxitu egin beharko zaizkie.

Katalogorako beste ekarpen batzuk gehitzeko tresna ezarri behar da, baita jarduteko plan global bat ere, mugatze arkeologikoak eguneratzeko. Hainbat babes-maila ezar daitezke: altua (kalifikatutako eremuentzat), ertaina (inbentarioan jasotakoentzat), eta baxua edo oinarritzkoa (aztarnategi arkeologikoa izan daitekeela uste den eremuentzat), eta bi kategoria berri hauek jaso litezke: *Aztarna Arkeologikoa* eta *Geologia-Arkeologia aldetik Intereseko Eremua*. Kokagunearen arabera ere sailka daiteke katalogoa: haitzuloetako aztarnategiak, aire librekoak, eta arkeologia aldetik intereseko lekuak. Orobat, ondare ofizial izendatutakoez gainera, babestutako beste ondare batzuen kategoria ere sar

daiteke, horiek babesteko araudiarekin. Beharrezkoa da katalogoa izatea, kasu praktikoetan tresna arin eta erabilgarria baita; obrek eta azpiegiturek sor dezaketen eragina aurreikusteko, adibidez.

Aztarnategi batzuen kasuan, ezinbestekotzat jo da non dauden publikoki ez jakinaraztea, toki horiek babesteko prebentzio-neurri modura.

Aztarnategi arkeologikoen babes bereziko eremuetan, baita balio kulturala duten eremuetan (P.7) eta paisaia aldetik interesa dutenetan (P.6) ere, telekomunikaziorako instalazioak galarazi egin beharko lirateke, energia sortzekoak, bideratzeak, ur-biltegiak edo antzerakoak, eta horiei erantsita izaten diren elementuak. Instalazio horiek arriskuko egoerak sor ditzakete eremu horiek kultura, ingurumen eta paisaia aldetik dituzten balioentzat.

Ondare Kultural Orokorreko katalogo bat sortu behar da, eta hor sartu behar da ondare ez-materiala, hala nola hizkuntza, errituak eta dantzak, eta, orobat, zenbait elementuk (itsasadarrak, esaterako) duten balio kulturala onartu behar da. Arkeologiak paisaian duen garrantzia ere azpimarratzekoa da; izan ere, gizakiak mendez mendeko jardueraren isla da arkeologia hori. Halaber, elementu kulturaltzat hartu beharko litzateke ingurunea kudeatzeko jakinduria tradizionala ere.

Arkeologiako katalogoak oinarritzko tresna dira, eta interesgarria litzateke Urdaibaik bere politika arkeologikoa izatea, eskualdean balioa duten elementu kulturalak aintzat hartuko dituen. Kontuan izan behar da ezin dela lurzoruen erabilerei buruzko neurri orokorrik ezarri aurrez baloraziorik egin gabe. Hortaz, ikerketa bultzatu beharko litzateke eta laginen bidez prospekzio zehatz eta zorrotza egin beharko litzateke, estratigrafia zehazteko eta kasuan-kasuan antolaketa-arauak eta -neurriak hartzeko. Lan hori egiteko, berriz, prospekzio-metodo berriak erabili beharko lirateke mendialdeko eremuetan eta baso inguruetan. Diziiplina anitzeko lantalde bat sortu behar da eskueran dagoen informazioa eguneratzeko eta arkeologiak geologiarekin (haitzuloak) edota arkitekturarekin (eraikinak) dituen mugak zehazteko, modu horretara muga horien inguruan adostasuna lortzeko.

Urdaibaiko Kultura Ondarearen Inbentarioan (IPCU-I) bildutako informazioa jaso beharko litzateke EKEGean, aztarnategi arkeologiko berriak eguneratzeko eta garai historikoko aztarnategiak sartzeko. Orobat, interesgarria da P6, P3 eta SRC eremuak potentzialtasun arkeologiko handikotzat kalifikatzea.

PAISAIA

Bereziki aipatu beharrekoa da paisaia berezien babesa. Urdaibai paisaia kulturala da, eta paisaia horretan balio natural eta kultural handia du landazabal atlantiko deritzon sistemak (labore-soroen, larreen eta zuhaitz-hesien mosaikoa). Paisaiaren dibertsitatea bera eta paisaiari loturiko alderdiak, hala nola egitura eta kolorea, oso garrantzitsuak dira paisaia horretan. Urdaibaiko paisaian oso nabarmena da gizakiaren eragina; gizarteak eta naturak elkarrekin izan duten bilakaeraren emaitza da paisaia hori. Azterketa zehatzen bidez paisaia horren jatorria zein den jakitea pisuzko beste arrazoi bat da paisaia hori babesteko, eta, horrenbestez, beharrezkoa da paisaiari buruzko arkeologia-azterketak egitea.

Erresilientzia handiko mosaiko baten moduan eutsi behar zaio paisaiari, eta horretarako, paisaia-mota horri bizirik eusteko, bide egokia da, zeharka bada ere, nekazaritza iraunkorreko jardunak bultzatzea. Garrantzitsua da, orobat, bideek duten balioa nabarmentzea, historia eta kultura aldetik oso garrantzitsuak direlako, eta arkitektura eta paisaia uztartzen dituztelako.

Helburu garrantzitsua da, halaber, lurraldearen lotura ekologikoa hobetzea. Urdaibaiko korridore ekologikoak EKEGera bildu beharko dira horretarako, marearteko zabalgunek, harri-blokeen hondartzak (*lapatzak*) eta uharrien hondartzak (*harribolak*) ere barnean hartuz, horiek guztiak oso garrantzitsuak direlako faunarentzat.

Paisaiaren kalitatea adierazten duen adierazleetako bat ikusteko gaitasuna da; hau da, paisaia hori ikusteko oztoporik ez izatea. Horretarako, paisaia bereziak ederresteko aukera ematen duten tokiak identifikatu behar dira eta paisaia hori ikusteko eta ikusmiraz gozatzeko oztopoak kendu behar dira. Azken urteotan, eraikuntza da Urdaibaiko paisaia jasaten ari den inpakturik handienetakoa eta, horrenbestez, dentsitate txikiko etxebizitzaren ugartzea kontrolatu egin behar da. Nekazaritza-jarduerarik izango ez duten eraikuntza berririk ez baimentzea da horretarako bidea; aldiz, itxura batean egokia da lehendik eraikitako ondarean (baserriak) etxebizitza-baimenak ematea. Bestalde, eraikin berriak parametro objektiboen bidez arautu beharko lirateke; trinkotasuna, teilatu-mota edo materialak lirateke parametro horietako batzuk. Lurraldearen Antolamendurako Arauetan bada paisaiei eta herriguneei buruzko atal bat, eta nukleo horien trinkotasunaren eta betiko eredu arkitektonikoen alde egiten da bertan. Metalezko hesiak eta landarez eginikoak ere arautu egin beharko lirateke, ikusmirarako oztopo izan daitezkeelako; landarezko hesietan, zehaztu egin beharko litzateke zer espezie erabil daitezken.

Gaur egun, Paisaiaren Legearen izapideak egiten ari da Eusko Jaurlaritza, eta horretarako, paisaia-katalogoak egiten ari da hiru eremu funtzionaletan. Katalogo horiek arau edo jarraibide bihurtuko dira Lurraldearen Plan Partziala (LPP) araudian jasotzen direnean, eta horien bidez aitortza juridikoa jasoko du paisaiak. Paisaia-integrazioarako azterketei buruzko araudia eta paisaian eragiteko planak ere jasoko ditu Paisaiaren Legeak, eta paisaia-unitateak oinarri hartuta egingo du lan. Katalogo horiek egiteko herritarren eta eragileen parte-hartzea bultzatuko da. Florentziako Hitzarmenak dio dena dela paisaia, hondatuenetik hasi eta hobekien kontserbatuenera. Hori dela eta, paisaia guztiak hartu behar dira aintzat, baita industriala, portuetakoa, meatzetakoa edo trenbideen ingurukoa ere. Intereseko paisaiak babes eremuetan sartu beharko lirateke, eta paisaian eta lurraldean duten eraginari buruzko azterketak egin beharko lirateke. Horrez gainera, eguneroko paisaien edo paisaia hondatuen babesa ere bultzatu behar da.

EKEGean jasotako estrategiak eta jarraibideak ikuspegi oso batetik jorratu beharko lirateke, eta ikuspegi horrek barnean bildu beharko lituzke balio ez-materialak, kulturalak, sinbolikoak, espiritualak, etab. Naturako Soinuaren Erreserba figura jasotzeko aukera ere aipatu da, babes bereziko eremuen zenbait esparrutan aplikatzeko (hegaztien kantua, olatuen marruma, ur-jauzien harrabotsa, etab.).

INTERES HISTORIKO-ARTISTIKOA DUTEN ERAIKINAK

Gaur egun, gizakiaren eragina nabarmena da Urdaibaiko paisaian, eta ondareari loturiko elementuak oso garrantzitsuak dira bertan; horrenbestez, Urdaibaiko ondare kulturala sistema baten modura har liteke, eta ez ondasunen batura soil modura. Herritarrek, sarritan, ez dituzte ondare izendatutako eraikinak balioesten, eta ondare horri buruzko pertzepzio negatiboa dute. Ondare horren balioa nabarmendu beharko litzateke, eta erakundeek laguntzak eman beharko lituzkete ondare hori babeste aldera beharrezkoak diren zaharberritzeak egiteko.

Eraikitako ondarean eginiko esku-hartze eta zaharberritzei dagokienez, nabarmentzekoa da eraikinak dokumentatzearen garrantzia, edozein esku-hartze egiten dela ere. Eraikitako ondarea dokumentu arkeologiko bat da, eta funtsezkoa da eraikinak beren ikuspegi historikoan ulertzea, eta horretarako oso aberasgarria da diziplinarteko lana. Interesgarria litzateke dokumentazio historikorako metodologia bat lantzea; izan ere, azterketa arkeologiko bat lagungarri izan daiteke arkitektoarentzat eraikina ulertzeko. Proposamen modura, dokumentazioa egiterakoan egokia litzateke azterketa sinkronikoen planoak izatea, identifika daitezkeen garai eta epeetakoak, baita diakronikoak, dinamikoak eta eboluzioa adieraz dezaketenak ere. Ezinbestekoa da, halaber, egungo eraikinen katalogoak egitea, katalogo horiek tresna funtsezkoak baitira kudeaketarako.

Esku-hartzeak egiteko moduari buruz, berriz, garrantzitsua da kontuan hartzea eraikin historiko orok eboluzio bat izan duela eta esku-hartze horrek errespetatu egin behar duela eboluzio hori; izan ere, ibilbidea garrantzitsuagoa da eraikina bera baino. Joera kontserbazionistago bat ere bada, eta, horren arabera, betiko moldeei jarraitu behar zaie, bai materialen erabileran eta bai egin litezkeen zabalpenetan. Alabaina, orokorki aldaketa berritzaile eta ez-erasokorrak onartu behar dira, XXI. mendeko joerekin bat egin behar dela arrazoituz. Nolanahi dela ere, guztiek onartzen dute oso garrantzitsua dela behin esku-hartzea amaitu ondoren erreferentzia historikoak eta bestelakoak dokumentatzea eta zabaltzea. Baserriak zaharberritzerakoan, berriz, kontuan hartu behar da eraikinak paisaiarekin bat egin behar duela.

Ondarearen beste kontzeptu batzuk zabaldu egin behar dira, hala nola ondare etnografikoa, lan publikoa, industrial edo ondare higigarria kontzeptuak. Ondare-mota horren adibide dira, esaterako, Oka ibaiaren zubia, errota eta presak, itsasadarren ubideratzea, etab. Orobat, nabarmentzekoa da aurrez aipatutako ondare ez-higigarriaren garrantzia.

Hauek lirateke eraikin historiko-artistikoetarako legezko erreferentziak: EKEG bera, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/90 Legea, Euskal Herriko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, eta Urdaibai Biosfera Erreserba Babesteko eta Antolatzeako 5/89 Legea.

NEKAZARITZARAKO ETA BASOGINTZARAKO INTERESA DUTEN EREMUEI, TURISMOARI ETA ENERGIARI BURUZKO MINTEGIA

NEKAZAL GARRANTZIKO EREMUA

Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorearen jardura funtsezkoa da Urdaibaiko paisaia kulturalari eusteko; bereziki, landazabal atlantikoa osatzen duten balio kultural eta ekologiko handiko ekosistemen mosaikoari eusteko. Urdaibaiko eremuaren funtzio-aniztasuna oinarritzat harturik, mintegian parte hartu duten kideek uste dute paisaiaren eta baliabide naturalen kontserbazioak bat etorri behar duela guztiz lehen sektorea garatzeko politikekin. Alabaina, datuek adierazten dute nekazaritza-jarduerak behera egin duela eta landa-inguruneetako biztanleak zahartu egin direla. Begien bistakoa da gaur egun sektoreak ez duela nahikoa etekin ekonomiko sortzen eta lanbideak ez duela ospe onik herritarrentzat erakargarri izateko, eta erakargarri izan daitekeenentzat ez dela erraza lehen sektore horretan hastea. Sektorea, ordea, oso garrantzitsua da herritar guztiontzat eta, horrenbestez, lanbidea biziberritzeko eta ospea berreskuratzeko bideak landu behar dira. Lehen sektorearen kudeaketarekin lotura zuzena duten kontuez gainera, landa-eremuetako herriak biziberritzea lortuko bada, garrantzitsua da pistei eta landa-bideei eustea eta aisialdirako eta turismorako guneak egokitzea. Horrenbestez, beharrezkoa da sektorea indarberritzea eta, aldi berean, gogoeta egitea zer nekazaritza-eredu bultzatu nahi den Urdaibain. Guztiok bat datoz bultzatu beharreko nekazaritzak errespetuz jokatu behar duela ingurumenarekin, eta eredu horretan leku nabarmena behar duela betiko nekazaritzak edo nekazaritza ekologikoak. Bide horretan jorratuko diren ekimen berriek bateragarri izan beharko dute kontserbazio-dinamikekin.

Ekonomia berdeko eredu bat sortzea proposatu da, ekoizpen-egitura aztertuz eta iraunkorragoa eginez. Alde horretatik, ezinbestekotzat jo da balio agrologikoa duten lurzorua babestea eta beste jardura batzuetarako ez erabiltzea, hala nola etxebizitzak eraikitze edota baso-landaketak egiteko.

Nekazaritza-lurretan beste erabilera batzuk baimentzeko aukera planteatu da, beti ere nekazaritza-izaera horri eutsiz gero; esaterako, egur nobleko fruta-arbolak landatzeko (gereziendoak, intxaurrondoak, gaztainondoak), horrek aukera ematen duelako nekazaritza-erabilera egur-ekoizpenarekin bateratzeko eta, horrez gainera, faunarentzat elikagaiak eskuratzeko.

Sektorea beste modu batera bideratzeko beharrezkoa da Nekazaritza eta Abeltzaintza Sektorerako Plan Estrategikoa zehaztea, alde batetik, ekoizpenerako eta enplegua sortzeko baliabidea den aldetik, lurzorua erabilerak babesteko eta zehazteko, eta, bestetik, betiko nekazaritza bultzatzeko. Aldi berean, nekazaritza eta abeltzaintza arloan ekoizpenerako beste aukera batzuk aztertzea izan beharko luke xede Plan Estrategiko horrek; merkatuan bidea egin dezaketen beste aukera batzuk aztertzea, hain zuzen.

Nekazaritzarako eta abeltzaintzarako lursailen banku bat sortzea izan da aztertzeko eta abian jartzeko interes handiena piztu duen proposamenetako bat. Nekazaritzarako lursailak banatzeko eta berrantolatzeko mekanismoak dira lursail-bankuak. Modu horretara, erreserbako nekazaritza sozioekosistemei eusteko helburuetara ahalik eta gehien egokituko dira lursail horiek. Jarduera hori bideratzeko, jakin egin behar da gaur egun zenbat lursail dauden eskueran nekazaritzan erabiltzeko, eta horretarako, azterketa bat egin behar da aipatutako informazio hori eskuratzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak adibidez martxan jarri du lursail-bankuen ekimena bat, baina funtsean lursail publikoak erabili dituzte horretarako, eta lurjabe pribatuek apenas egin izan duten ekarpenik. Itxura batean, lursailak mantentzea eta garbitzea beste mesederik ez diote ikusten lurjabe pribatuek ekimenari. Hori dela eta, komeni da aztertzea pizgarriren bat sor ote daitekeen lurjabe pribatuen parte-hartzea sustatzeko eta areagotzeko.

Nekazaritza-jarduera bultzatzeko beste bide bat da lursailen alokairua bultzatzea lursail horiek nekazaritzarako eta nekazaritzako elikagaiak ekoizteko erabil daitezen. Horrek, enplegu-programen bidez edota boluntarioen bidez, gazteen artean jarduera horiek bultzatzeko aukera emango luke, eta, aldi berean, landa-inguruneetako biztanleen zahartzeari aurre egiteko.

Nolanahi dela ere, lursail jakin bat labore batera bideratzeko zehaztasun osoz jakin eta azaldu behar da lursail horrek zer gaitasun duen nekazaritza-ekoizpenerako eta, zehazki, landatu nahi den labore hori ekoizteko; izan ere, labore-motak erabat baldintzatuko ditu lurzorua beharizanak.

Estrategikotzat jotzen da, halaber, bertako produktuen kontsumoa sustatzea, era horretara eskualdeko nekazaritzari eta abeltzaintzari bultzada emateko. Bertako hainbat produktuk merkatu potentzial handia dute; adibidez, Gernikako piperrak eta babarrunak, txakolina egiteko mahatsak, gazta egiteko ardi-esneak, arrautzak, etab. Produktu horiek erabiltzeak, gainera, lagundu egiten du bertako barietateen biodibertsitateari eusten. Bertako produktuak kontsumitzeak mesede egiten dio, halaber, iraunkortasun globalari; izan ere, garraioaren beharra murriztu egiten da eta, horrenbestez, baita erregai fosilen erabilera ere, eta horrek, azken-azkenean, mesede egiten dio klima-aldaketaren aurkako borrokari.

Horrelako produktuei buruzko merkatu-azterketa bat egitea lagungarri izan daiteke, produkzioa bertako produktuak kontsumitzen dituzten herritarrei begira antolatzeko. Ekoizle zuzenak eta banatzaileak elkarrekin merkatu hori modu osoan kudeatzea lagungarri izan daiteke, hein handi batean, bi aldeek etekin handiagoa ateratzeko. Eskala txikian martxan dira dagoeneko bertako produktuen kontsumoa indartzeko hainbat ideia eta ekimen, hala nola bertako azokak (ohikoak zein herriz herrikoak) eta salerosketa zuzena, eta ideia horiek bultzatu egin behar dira.

Alde horretatik, ekimen berritzailea izan daiteke ekoetiketa bat edo kalitate-marka bat sortzea. Era berean, ekintza berritzailea litzateke Urdaibai aldeko eskola publikoetako, beste zentro publikoetako eta administrazioko jangeletan bertako produktuak erabiltzea. Orobat, onuragarria litzateke produktu horiek eskualdeko jatetxe eta tabernetan erabiltzea eta eskaintzea, hartara, jatetxe eta taberna horiek iraunkortasunaren eredua aintzat hartu eta bestelako kultura gastronomikoa sustatuko luketelako.

Bestalde, produkzio-sektorea bultzatzeko ekimenekin batera produktua eraldatzeko industria ere indartu egin behar da, balio erantsia areagotzeko. Era berean, enoturismoko eta ekoturismoko jarduerak sustatzea bide egokitzen jo da produktuen eta errenten dibertsifikazioa lortzeko, baita turismo- eta nekazaritza-sektoreen artean sinergiak sortzeko ere.

Legegintza arloko alderdiei dagokienez, legeak debeku modura egiteko joera dago gaur egun (politika erreaktiboak), eta, horren orde, eredu proaktiboago baten alde agertu dira mintegiko partaideak. Eredu horrek eragileen parte-hartzea bultzatu beharko luke eta, zenbait murrizketa direla medio, inork kalterik jasango balu, kasuan-kasuan kalte-ordaina emateko modurik egokiena bilatu. Nekazaritza-lurra da sektorea laguntzeko eta indartzeko jardueren oinarria eta, horrenbestez, nabarmena da lur horiek babestea eta horien alde egitea zein garrantzitsua den. Bada erreferentziazko arau-marko bat: Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 17/2008 Legeak araututakoa, hain zuzen. Mintegiko partaideek beharrezkotzat jo dute lege hori EKEGera biltzea, Erreserban dauden nekazaritza-lurak babesteko sistema egokia ezartzeko. Balio agroekologiko handia duten lurzoruak estrategikoak eta interes sozialeko ondasunak direla ere onartzen du lege horrek. Nekazaritzarako intereseak diren eremuen LEE (Lurralde Ekintzarako Egitamua) eta PADAS programaren Nekazaritza Sektoreko Plana garatu behar direla ere aipatu da mintegian.

Orobat, Erreserban esku hartzen duten administrazio guztientzako araudi loteslea ezartzea ere proposatu dute mintegian parte hartu dutenek. Araudi horrek aurrekontuaren gutxieneko batzuk bideratu beharko lituzke nekazaritzako elikagaiak ekoizteko eta eraldatzeko zuzeneko laguntzetara. Herbizida, plagizida eta beste produktu batzuen erabilera erregulatze arauak ezarri beharko dira, eta nekazari, abeltzain eta basozainei baliabideak eman beharko zaizkie beren jardura iraunkorragoa egiteko eta ingurumenari ahalik eta kalte gutxien eragiteko. Gainera, lurralde-zaintza kontratuen esperientzia ontzat eman dute mintegiko kideek, eta bide egokia izan daitekeela uste dute lehen sektore iraunkorra lortzeko.

Kalte-ordainak emateko neurriei buruz, hor da, alde batetik, EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatze Sektore Plana, eta hor zehazten dira aintzat hartu beharreko zenbait nekazaritza-aldagai sektorean izaniko eragina ebaluatze, baita ezarri beharreko neurri zuzentzaileen sorta ere; eta hor da, bestetik, sektorean izaniko eragina ebaluatze Protokoloaren proiektua. Protokolo horren helburua nekazaritza-esplotazioen eta nekazaritza-lurren gaineko eragina ebaluatzea da, eta 17/2008 Legearen xede eta helburuekin bat eginez, tresna egoki bat lortzea nekazaritza-esplotazioen eta nekazaritza-lurzoruen gaineko eraginaren balorazio objektiboa egiteko.

Bestalde, ingurumenean eragindako inpaktuen kontrolari begira, ekotasa bat sortzeko aukera aipatu da inpaktu handiena sortzen duten jardueren ezartzeko.

BASOGINTZARAKO INTERESA DUTEN EREMUAK

Adostasuna erabatekoa da: uztartu egin behar dira, alde batetik, Urdaibaiko biodibertsitatearen eta paisaiaren kontserbazioa eta, bestetik, baso-landaketen kudeaketa iraunkorra. Gehien-gehienak bat datoz premiazkoa dela basoen errentagarritasuna ziurtatzea eta, aldi berean, basoko baliabideen funtzio ugari eustea. Izan ere, ekoizpenaz gainera, basoek funtzio ugari dituzte: uraren zikloa erregulatzea, lurzorua eta mantenugaiak kontserbatzea, biodibertsitateari eustea, eta balio kultural eta sozialak mantentzea.

Baso-ekosistema batzuk, ibaiertzeko basoak adibidez, lehentasun handikoak dira eta, beraz, administrazio publikoek lagundu egin behar dute ekosistema horiek babesten eta lehengoratzeko. Alabaina, basoen erabilera arautzeko lurralde-antolamendu zehatzik ez dagoenez, ohikoa izaten da

ibaien eta errekaen ertzak baso-landaketen bidez inbaditzea. Hain zuzen, mintegiko partaideek egiaztatu dute baso-landaketek ez dituztela errespetatzen ibai ibilgua babesteko ezarritako distantziak.

Bestalde, egurra material berriztagarria denez, energetikoki hain eraginkorrak eta biodegradagarriak ez diren beste material batzuk (zementua eta plastikoa, adibidez) baino gehiago erabili beharko litzatekeela uste dute mintegietan parte hartu duten adituek eta, beraz, egurraren erabilera bultzatu beharko litzatekeela. Eraikuntzan egurraren erabilera bultzatzeko moduetako bat da erabilera horretarako administrazio-prozesuak arintzea. Ekoizleei eta egurra eraldatzen duten enpresei laguntzeko modua da hori. Intsinis pinua azkar hazten da eskualdean eta, gainera, egurra eraldatzen duten bertako bi enpresa espezializatuta daude espezie horretan. Era berean, erreserbak iraunkortasunerako laborategi modura betetzen duen eginkizuna nabarmentze aldera, aipatu da bertako espezieetan espezializatuko diren eraldatze-enpresak bultzatzeko aukera ere.

Baso-landaketek ingurumenean eragin kaltegarriak sor ez dezaten, beharrezkotzat jo da makina astunak erabiltzen dituzten ustiapen teknikak saihestea, bereziki %30etik gorako aldapetan, lurzorua ez higatzeko eta ez trinkotzeko. Era berean, itxura batean egokia da zenbait ekintza saihestea, matarrasa edo baso-soilketa eta mendi-hegalak lerrokako zoruberritze bidez prestatzea, esaterako, jardun horiek higadura-tasa oso handiak eragiten dituztelako. Lurzoruen galera gehiagorik ez gertatzeko, aztertze kontua da babes-figura bat ezartzea, mendi babesleena hain zuzen, %35etik gorako malda duten mendietarako.

Jardun bortitzak saihestu behar dira, hala nola matarrasa erako baso-soilketak, lurzorua iraultzea, lurzorua eta harkaitz-substratua zatikatzea; izan ere, jardun horiek hainbat ondorio kaltegarri sortzen dituzte: lurzorua galtzea, lurjausiak mendi-hegaletan, higadura-arriskua areagotzea, lurreko elikagaien gutxitzea, ibaietan solidoen eta jalkinen ekarria areagotzea, uretako habitata nahastea, ibaiertzeko landaretza degradatzea, etab. Makinak erabiltzea beharrezkoa izan daiteke zenbait kasutan, baina araudi bat landu behar da, egoeraren eta baldintzen arabera beste aukera batzuk baliatzeko modua izan dadin. Kontuan izan behar da lursailak prestatzeko lanetan murriztu egin behar direla lurrraren asaldura mekanikoak, era horretara lurzoruak ez hondatzeko eta haien emankortasuna ez galtzeko. Arrazoi beragatik, komenigarria da, orobat, ebakitako adar, sasi, sastraka eta abarrak lursailean mantentzea.

Badira beste neurri interesgarri batzuk ere: landaketen artean zuhaitz helduren bat edo haritzak uztea eta herbizida eta biozida indartsurik ez erabiltzea, kasurako.

Egurra ateratzeari buruz, berriz, pistak hobetu eta egurra kontrolik gabe ateratzeko bideak saihestu behar direla nabarmendu dute mintegian bildutakoek. Eta horretarako egokia izan daiteke lurjabeen eta eskumena duten administrazioen artean lankidetzarako formulak ezartzea.

Administrazioak mekanismo egokiak ezarri beharko lituzke erabakiak hartzerakoan lurjabeak kontuan hartzeko eta lurjabe horiei kalte-ordainak emateko; hots, jardueraren batek haien eskubideak urratuz gero kalte-ordain ekonomikoak emateko. Konpentsaziorako hainbat mekanismo azter litezke; ingurumen-zerbitzuengatik ordaintzea, politika fiskalak, errentak aurreratzea, etab. Proposamena da Urdaibai saioak egiteko laborategitzat erabiltzea, gaur egungo diru-laguntzen sistema aldatzeko eta, hala, basogintzaren arloan ingurumen-jardun egokiak sustatzeko eta laguntzeko (bertako espezieekin, etab.) eta jardun kaltegarriak eragozteko. 258/1998 Dekretua marko egokia izan daiteke horretarako; izan ere, kalitate handiko egur-espezieak (gereziondoa, adibidez) eta ingurumen-balio handikoak (haritza, esaterako) landatzea bultzatzen du dekretu horrek. Kalte-ordainen mekanismoak erabili beharko lirateke beste espezie batzuk erabiltzearen truke, epe luzera lortzen baita horien errentagarritasuna.

Baso Ziurtagiri Iraunkorra (basoen kudeaketa iraunkorra bermatzeko modu bat) lortzeko prozesuak, berriz, eztabaida piztu du; izan ere, batzuek ez dute argi ziurtagiri horren bideragarritasuna. Batzuen iritziz emaitza onak izan ditu eta basoak modu iraunkorrean kudeatu direla bermatzen du; aitzitik, beste batzuen iritziz, titulartasun publikoan oinarritzen denez, ez du emaitza onik izan. Gai hori ebaluatu eta xehetasun osoz aztertu beharko da datozen urteetan.

Aplikatu beharreko arau eta neurri guztiak Nekazaritza eta Basogintzako Plan batean bildu beharko lirateke, eta, aldi berean, oinarritzat hartu beharko lirateke baso-eremuen LEE eta Sektore Plana garatzeko.

TURISMOA ETA MERKATARITZA

Begien bistakoa da Urdaibain turismorako potentzial handia dagoela, baina ez dela turismo-sektore egituraturik garatu. Hauek dira, besteak beste, turismoa ez garatzeko arrazoiak: lotura aldetik zailtasunak ibilbide turistiko bat finkatzeko, eta gerentzia eta ostalaritza arloetan giza baliabide urriak turismo-arloko prestakuntzarekin. Ostalaritza, itxura batean, ez da erakargarria bertako biztanleentzat.

Bada beste arazo bat ere: bisitari gehienak urtaro jakinetan hurbiltzen dira Urdaibaira eta, hala, goraldi nabarmenak izaten dira udako hilabeteetan eta asteburuetan. Hori dela eta, zerbitzuak zer-nola garatuta dauden aintzat harturik, karga-gaitasunak gainezka egiten du, bereziki udaldian, hondartzara hurbiltzen den turismoaren eraginez. Horrenbestez, funtsezkoa da eskaintza turistikoa zabaltzea (touring, gastronomia, ardoak, abenturazko turismoa, turismo etnikoa, etab.), bisitariek udaldian ez ezik gainerako urtaroetan ere jo dezaten Urdaibaira.

Gainera, adituen ustea da biosfera-erreserba batek erakarriko lukeen turismo-mota zehatz bat bultzatu behar dela; kultura, ingurumen eta gizarte aldetik dituen balioetan oinarrituriko turismoa. Alde horretatik, beharrezkotzat jo da gaur egungo EKEGean ageri diren “turismo-produktu kulturala” eta “turismo-produktu berdea” kontzeptuak zehaztea. Horrez gainera, turismo iraunkorrarekin loturiko zenbait jardura ere bultzatu behar dira; hala nola, garraioaren erabilera iraunkorra, birziklatzea, material ekologikoen erabilera, etab. Besteak beste, honako hauek sustatu behar dira: trenaren erabilera, itsasadarraren alde bat eta bestea komunikatzeko ferryak eta aparkalekuak, autoa utzi eta joan-etorriko autobusetan hondartzetara hurbiltzeko aukera emango duten aparkalekuak.

Bestalde, aisialdi-eskaintza garatu beharko litzateke bertan bizi direnentzako eta Urdaibain bigarren etxea dutenentzako. Proposamena da turismoa eta bigarren etxebizitza landa-garapenerako eta lehen sektorearen dibertsifikazio ekonomikorako bitarteko modura erabiltzea.

Turismoari begira ahalmen handia du Urdaibaik (itsasadarra, kostaldea, artadiak, gastronomia, ondare kulturala...), baina erakargarritasun turistikoei buruzko informazioa falta da, eta eskualdeko bitxi horiek “merkaturatzea”. Naturaren alderdi askotarikoak bultzatu daitezke: estuarioa, artadiak... bai eta beste alderdi batzuk ere, hala nola gastronomia, landa-ingurunea, etab.

Kultura-ekipamenduek bideragarritasun eskasa dutela antzeman dute mintegiko partaideek, eta horiek bisitatzeko ordutegiak motz samar geratzen direla ere bai. Erreserban eskainitako produktuen balio-katearen kate-mailatzat hartu behar dira ekipamenduak. Halaber, eskualdeko ostatu eta alojamenduetako plazen eskaintza mugatu samarra da, eta zenbait urte-garaitan, berriz, okupazioa eskasa da. Horren harira, kontuan hartu behar da Urdaibaik kanpin bat duela, 26 landetxe eta hainbat pentsio eta hotel, baina ostatu horietako bakar batek ere ezin du 55 laguneko talde bat hartu (autobus batean etortzen direnak), eta, horren ondorioz, ezin dute, adibidez, Urdaibain ostatu hartu partaide-kopuru aldetik bilera edo ekitaldi nagusi samar batera etor daitezkeen pertsonak.

Interesgarritzat jo da Urdaibain egungoak baino hotel handiagoa izatea, hiriguneren batean, baina era horretako aurreko saiakerak ez dira aurrera joan. Nolanahi dela ere, ados dira guztiak Urdaibain batez ere kalitatezko alojamendua, hurbileko tratua emango duena, sustatu eta eskaini behar dela, landetxeen ereduari jarraituz. Arlo horretan berritzea eta esperimentuak egitea ere ontzat jo da, eta, esaterako, baserritarrei bungalowak edo kanpatzeko eremuak jartzeko aukera ematea aipatu da; baina argi izanik, betiere, nekazaritza-lurra batik bat nekazaritzarako erabili behar dela eta kalitatezko turismoari eutsi behar zaiola. Egun erabiltzen ez diren industria-lurzoruetan turismorako alojamenduak sortzeko aukera ere aipatu da, gaur egun EKEGean eskumenekoak ez diren eremuetan, hain zuzen. Hori dela eta, itxura batean beharrezkoa izango da hiri-lurzorua eta nekazaritza-lurzorua modu bateratuan kudeatzea.

Kanpineko plazak urriak direla ere nabarmendu da, eta ez dagoela zerbitzurik familia, ezindu, erromes, surflari eta abarrentzat. Beste zenbait ekipamendu ere aipatu dira, hala nola hegaztien behatokiak, edo auzoak lotzeko bideak. Turismo aktiboari dagokionez, eskaria badago eta produktuak arrakasta du, baina azpiegiturak falta dira.

EKEGean zehaztutako estrategietan aipamen gutxi batzuk baino ez dira egiten aisialdiko eskaintza sendotzeki buruz; horrenbestez, aisialdirako eremu soil modura besterik ez da garatzen Urdaibai (ibiltariak, bertakoek eta bigarren etxebizitza dutenek gozatzeko), eta ez turismorako ingurune modura. Gainera, EKEGak eraikuntza-lanetarako ezarritako araudi zorrotzak, beharrezkoa izanik ere, aisialdiari buruzko ideia negatiboa adierazten du Erreserban. Izan zen antolatze saio bat 1998. urtean, Turismo Berdearen Sektore Plana landu zenean, baina ez zen onartzera iritsi.

“Turismo Iraunkorreko Europako Gutuna” aintzat hartu eta hari atxikitzea proposatu da, beste zenbait erreserbek egin duten modura, baita Biosfera Erreserben Sareak turismoaren arloan bultzatutako ekimenekin bat egitea ere. Estrategia turistikoa zehazteko ahalegina egiten ari dira eskualderako; EKEGaren berrikusketarekin paraleloan joan beharko luke estrategia horrek, betiere iraunkortasun-irizpideei jarraituz.

INDUSTRIA ETA ENERGIA

Industria iraunkorra lortzeko funtsa energiaren gaia da. Urdaibaiko gaur egungo egoera dela medio, erregai fosilen premia izugarria da eta, petrolioaren prezioak gora egingo duela aurreikusirik, behar-beharrezkoa da eskualdearen energia-eraginkortasuna hobetzea eta energia berriztagarriak erabiltzea. Aurrezteko eta eraginkortasuna lortzeko estrategiak badira jarduera-sektore bakoitzerako; sektore batzuetan garatuago daude estrategia horiek eta atzera-aurrera egiteko tarte gutxiago dago, baina beste sektore batzuetan, aldiz, lan handia dago egiteko. Energia-eraginkortasunari loturiko ekintza batzuk nahiko errazak dira ezartzeko; kaleko argiztapena berritzea eta energia aldetik sistema eraginkorragoa ezartzea, adibidez. Horri esker dezente aurreztuko litzateke eta, gainera, argi-kutsadura ere nabarmen murriztuko litzateke.

Urdaibaiko gaur egungo argindar-sarea berrikusteko beharra ere aipatu da; izan ere, sareak gainezka egin du eta horrek hornidura-arazoak sortzen ditu.

Aprobetxamendu termikoa lortzera bideratuak dauden energia berriztagarriak, hala nola eguzkiaren beroa, geotrukea eta biomasa, errazak dira ezartzeko; izan ere, ez dago araudi askorik eta, aldiz, diru-laguntza mota dezente daude. Aldiz, energia elektrikoak, hala nola eolikoa, fotovoltaikoa edo itsasokoa, arautuago daude eta, horren ondorioz, zailagoak dira ezartzeko. Araudi horren xedea da, funtsean, zenbait aldagairen arabera (energia-mota, heldutasuna, garapen teknologikoa, etab.) energia horiek jasotzen duten sari ekonomikoa kontrolatzea. Araudi hori itxura batean zorrotzegia dela eta energia horiek ezartzea oztopatzen duela uste dute mintegian bildu direnek.

Partikularrek ere erabil ditzakete energia berriztagarriak, hainbat aukera dituzte horretarako: truke geotermikoa, haize-sorgailu edo errota txikiak, eguzki-panelak, etab. Nolanahi ere, horrelako instalazio bat egin baino lehen bideragarritasun-azterketa bat egin beharko litzateke aurrez. Adibidez, truke geotermikoa beharbada ez da oso eraginkorra Urdaibain, padura-eremua delako.

Biomasa bidezko energia termikoari dagokionez, hainbat aukera landu dira biomasa aprobetxatuz etxebizitzetan energia termikoa sortzeko (hau da, eskala txikian) eta emaitza oso onak ematen ari dira sistema horiek. Beraz, komeni da zabaltzea. Alabaina, mintegian parte hartu dutenek ez dute argi egokia ote den Urdaibaiko mugetatik hurbil basoko hondakinak aprobetxatuko lituzkeen biomasako zentral bat eraikitzea; batzuek baietz diote eta besteek ezetz. Busturialdean da zentralaren proiektua eta, horrenbestez, bere egokitasuna gai garrantzitsua da Urdaibaiko erreserbarako. Nolanahi dela ere, beharrezkoa da jakitea zentrala eraikitzeak energia aldetik zer kostu izango duen eta martxan jartzeko zer garraio eta inbertsio beharko den, datu horien bidez proiektuaren bideragarritasuna aztertzeko. Bestalde, mintegian bildutakoek hainbat arrazoi eman dituzte instalazioaren kapazitateari buruz eta ingurumenean izan dezakeen eraginari buruz zalantzak izateko, baita etorkizunean eskualdeko basoetan izan dezakeen eraginari buruz kezka izateko ere.

Eraikinetan energia fotovoltaikoa erabiltzeari buruz, berriz, erabilera hori bultzatzearen aldekoak dira mintegiko partaideak, batez ere eraikin publikoetan. Badira esperientzia garrantzitsuak Urdaibain: EVE/EEE erakundeak mota horretako instalazioak ezarri ditu zenbait udalerritan, eta eginiko inbertsioa berreskuratu ondoren, Udalak berak hartu du instalazioa ustiatzeko ardura. Esperientzia horiek zabaltu egin daitezke eskualde osoaren onerako, baina horretarako beharrezkoa da hasieran inbertsioa egitea, eta hori da, hain zuzen, oztopo nagusia.

Itsas energiari buruz, begien bistakoa da badagoela ahalmena energia hori erabiltzeko, baina egokitu egin behar da teknologia lehendik dauden azpiegituretara, edo eraikuntza berriak aprobetxatu behar dira energia hori sartzeko; gainerakoan, kostuak oso handiak dira (bai diru aldetik eta bai ingurumen aldetik). Itsas korronteen bidez edo olatuen bidez sor daiteke energia-mota hori. Zenbait ikerketa egin dira Bermeoko kai muturrean energia-mota hori erabiltzeko, baina emaitzak ez dira nahi bezain onak izan. Gaur egun proiektu bat dago Armintzan modelo berriak probatzeko eta teknologia berriekin saioak egiteko.

Energia berriztagarriak ekoizteko instalazioetan, batez ere instalazio industrialetan, araudi bat ezarri beharko da ingurumenean kalterik sor ez dadin. Energia berriztagarriak industria-mailan erabiltzen direlarik, kontu izan behar da eskualdean eragin handia sor dezaketen instalazio handirik ez egiteko. Hau da, instalazio txikiak, ingurumenean edo gizartean eragin handirik sortuko ez dutenak, lehenetsiko dira beti, instalazio horien iraunkortasuna modu osoan bermatzeko.

Gaur egungo EKEGak ez du aintzat hartzen energia berriztagarriak instalatzea, eta, horrenbestez, beharrezkoa da plana berritzerakoan aukera hori kontuan hartzea. Etorkizunera begirako estrategia bat planteatu daiteke, energiaren arloan ere Urdaibai laborategi modura baliatuz. Gaur egun, erabili gabe dago lurzoru industrialeko azalera oso zabala, eta energiarekin loturiko industria iraunkorra garatzeko baliatu daiteke azalera handi hori. Adibidez, energia berriztagarrietarako beharrezkoak diren produktuen fabrikak eraikitzeak eta, hala, instalazio horietan eguzki-energia termoelektrikoko eta itsas energiako produktuak, haize-sorgailuak etab. egiteko.

2003an Plan Estrategiko bat idatzi zen Urdaibairako, 2003-2010 Energia eta Inurumenari buruzko Egitamua Gidaria izenekoa, baina ez zen onartzerantz iritsi eta, horrenbestez, 2010. urtean baliorik gabe geratu zen. Plan hori berrikusi egin beharko litzateke, intereseko ideiak berreskuratzeko. Bestalde, onartzeko bidean da Euskadiko Energia Estrategia; energiari loturiko proiektuak lantzeko erreferentzia izan beharko luke estrategia horrek EAE osoan. Energia eolikoaren eta biomasa bidezko energiaren

garapenean oinarritzen da estrategia hori. Era berean, eguzki-energia sustatzea oso garrantzitsua dela nabarmendu dute mintegiko partaideek.

LURRALDE ANTOLAMENDUARI BURUZKO MINTEGIA

GAI OROKORRAK

Egitamu Gidaria zenbateraino bete den eta ezarri den hizpide hartuta, mintegiko partaideek etorkizunera begirako lehentasunen artean EKEGean aurreikusitako Lurralde Ekintzarako Egitamuek garatzea, eta plan horiek garatuko dituzten eragileak zehaztea eta horretarako aurrekontu bat egokitzea proposatu dute. Egitamu Gidariak bi bide aurreikusi zituen bere burua garatzeko: batetik, epe luzera begira, lurralde ekintzarako egitamu horiek garatzea; eta, bestetik, bide azkarrago modura, lurraldea zonifikatzea eta lurzoru-kategoria bakoitzean baimendutako erabilerei eta eraikuntzei buruzko antolamendu-arau zuzenak ezartzea. Azken bide hori garatu da gehien, eta EKEGa Lurralde Ekintzarako Egitamuen bidez garatzeko beste bidea alde batera utzi da. Plan horiek gehiago garatzeak aukera emango zukeen, beharizanen arabera beste eskala egokiago batetik jorratzeko lurraldearen antolamendua.

Urdaibaiko Biosfera Erreserban diharduten eragile guztiek EKEGa errazago ulertzeko eta erabiltzeko moduari buruz, mintegietan parte hartu dutenek adierazi dute Egitamu Gidariak argi eta garbi zehaztu beharko lukeela bere helburua, ekintzak, epeak eta ekintza bakoitzean esku hartzen duten eragileak ere hobeto finkatu beharko lituzkeela. Mintegietako partaideek azpimarratu dutenez oso garrantzitsua da jabetzea EKEGa ez dela Baliabide Naturalak Kontserbatzeko Plan bat, Garapen Iraunkorreko Lurralde Plana baizik, eta horretarako diziplina anitzeko ikuspegi bat ezarri behar dela ikuspegi guztiak biltzeko. Egokitzeak jo dute, halaber, dokumentua sinplifikatzeko eta eskema moduan azaltzeko ahalegina egitea, horrela errazago ulertzeko eta aplikatzeko. Horretarako, araudia erabileren matrize batean islatzeko aukera proposatu dute, EKEGaren espiritua gordeko duen oinarri batean, horren bidez planaren helburuak eta ahalmenak modu errazagoan gauzatu ahal izateko. Gainera, beharrezkotzat jo da jarraipenerako programa bat ezartzea, ebaluazio bat egiteko aukera emango duten adierazleak garatuz.

Urdaibai Biosfera Erreserbaren esparruan, hainbat eskalatan eta maila desberdinetan aplikatzen diren araudiak koordinatzeko premia aintzat hartzea da beste gai aipagarrienetako bat. Alde horretatik, mintegietako partaideek adierazi dute beharrezkoa dela EKEGa eguneratzea eta beste araudi batzuekin koordinatzea. Hauek dira beste araudi horietako batzuk: Lurraldearen Antolamendurako Arauak, Erreka eta Errekastoen Ertzak Antolatzen Lurraldeko Sektore Plana, Gernika-Markina Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala eta Kontserbazio Bereziko Eremuetarako (KBEak) Kudeaketa Planak.

Alde horretatik, Lurraldearen Antolamendurako Arauetan jasotzen den Erreserbaren berezitasunaren ildo berean (Ingurune Fisikoari buruzko 8. kapituluaren 7.A atala, eta, orobat, 22. kapituluaren aplikatu beharreko erabaki lotesle moduan jaso), araudi horiek eta indarrean egon eta Urdaibain eragina izan dezaketen beste batzuk EKEGaren barnean biltzeko aukera proposatu dute, Egitamu Gidaria bera, Erreserbaren esparruan, beste araudi horien erreferentziatzen hartuta. Gai horren harira, ordea, alde bateko eta besteko iritziak sortu dira, eta, agerikoa da alderdi horren gainean gehiago hausnartu beharra dagoela; izan ere, batzuek proposamen horren kontrako irizpideak azaldu dituzte, uste baitute, alderantziz, EKEGa sektoreko arau horietara igorrita, arindu egin daitekeela dokumentuaren beraren edukia.

Egitamu Gidaria tarteko tresnatzen hartzeko aukerari buruz ados dira eragile guztiak; izan ere, udalez gaindiko erakundeek proposatutako Lurralde Antolamenduaren eta tokiko administrazioen

Antolamendu Orokorren arteko tresna izan daitekeela uste dute eragile horiek. Hori guztia Urdaibai Biosfera Erreserbaren gobernantza-ereduan oinarriturik. Eredu hori Urdaibai Biosfera Erreserbaren Patronatuaren bidez egituratzen da eta, besteak beste honako erakunde hauek daude ordezkatura Patronatuan: Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Ingurumen Ministerioa, UNESCO, gizarte-eragileak (unibertsitatea, nekazaritza-sindikatuak edota talde ekologistak), bai eta Urdaibai Biosfera Erreserbako Lankidetzak Kontseiluko presidentea ere. Biosfera Erreserban lan egiten duten hainbat erakundez osaturik dago aipatutako kontseilu hori. Hala, mintegiko partaideen iritziz onuragarria litzateke tarteko eskalako Lurralde Egitamua bat izatea, Patronatuaren bitartez administrazio guztien artean eta bereziki tokiko erakundeekin adostua, Urdaibai Biosfera Erreserbaren garapenerako eragile zuzenak diren aldetik. Era berean, eragileen irudiko, lurraldea modu iraunkorrean kudeatzeko zeregina arinagoa eta malguagoa izango litzateke tarteko tresna horri esker.

Beharrezkotzat jo dute, orobat, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren mugak sortzen duen tarteko lurralde-eskala horren esparruan, beste antolamendu modu baterako oinarriak ezartzea, eta antolamendu horretan, besteak beste, honako alderdi hauek jasotzea: mugikortasuna eta etxebizitzetarako, jarduera ekonomikoetarako eta ekipamenduetarako lurzoruen kudeaketa.

MUGIKORTASUNA

Mugikortasunaren harira, hainbat eskalatatik aztertu dute gaia eta egoera zein den berretsi dute. Oinezko eta bizikletazko garraiobideei dagokionez, mugikortasun geldoko estrategiarik ez dagoela nabarmendu dute, eta garraiobide publikoa garatu gabe dagoela; horrenbestez, proposatu dute xehetasun handiagoz aztertzeko arazo horrek zer irtenbide izan dezakeen. Udan hondartzetarako sarbideetan sortzen diren mugikortasun-arazoak azpimarratu dituzte, eta zenbait irtenbide proposatu dituzte: autoa utzi eta joan-etorriko autobus merkeetan hondartzetara hurbiltzeko aukera emango duten aparkalekuak sortzea, eta instalazioen inguruan gogoeta egitea, udaldian ez direlako nahikoa eta urteko gainerako hilabeteetan ez direlako behar beste erabiltzen. Ondorio modura, Urdaibai Biosfera Erreserbako Mugikortasun Iraunkorreko Plana lantzea proposatu dute. Mintegietako partaideen iritziz, plan horrek egungo egoera zein den jaso beharko luke eta irtenbideak proposatu beharko lituzke, bide-sareari loturiko arazoetarako eta bestelakoetarako, eta, horretarako, kontuan hartu beharko lituzke turismo-sektorearen eta tokiko erakundeen eskakizunak, eta aintzat hartu beharko lituzke, orobat, lurraldearen berezko balio naturalak eta kulturalak.

HIRIGINTZA-PLANEAMENDUAK ANTOLATU BEHARREKO EREMUAK (HPA) ETA SISTEMA-EREMUAK

Gaur egun, bizitegi-lurzoruak eta industria-lurzoruak Hirigintza-plangintzaren bidez antolatzen diren eremuen kategorian jasota daude Egitamua Gidarian. Alde horretatik, Lurralde Plan Partzialeko zirriborroan eta Lurraldearen Antolamendurako etorkizuneko arauetan bildutako proposamenei begira, beharrezkotzat jo dute hiri-lurzoruak eta lurzoru urbanizagarriak berriro interpretatzea. Horren harira, beste aukera hauek ere proposatu dituzte: alde batetik, lurzoru urbanizaezinak okupatzea, izan daitezkeen hazkundeak ahalbidetzeko edo aurreikusteko eta, bestetik, hiri-lurzoruak eta lurzoru urbanizagarriak kudeatzeko berezitasunak EKEGaren bidez arautzen diren lurzoru urbanizaezinen kudeaketan integratzea, zuzkidura edo lagapen modura babes-eremuak eskuratu ahal izateko. Ildo berean, lurzoru urbanizaezinen gaineko hirigintza-presioa arintzeko, “eraikigarritasun-merkatuak” sortzea ere proposatu dute, horien bidez lurzoru urbanizaezinean izan daitezkeen erabilerak aurreikusteko eta aprobetxamendu horiek hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri modura sailkatutakoetan gauzatzeko.

Industria-lurzoruei dagokionez, zehaztu dute kalifikazio hori duten hainbat lur hutsik edo gutxi ustiatuta daudela (Gernika-Lumoko ibarrean, adibidez) eta horietan eskualde osorako ekonomia-jarduera berriak ezar daitezkeela.

Aipatutako beste proposamenetako bat izan da lurzoru urbanizaezinen artean sailkatutako lurak HPA lurzoruetan integrazteko aukera, era horretara bi lurzoru mota horien arteko muga leuntzeko. Horrek, tarteko eremuak sortzeko aukera ekarriko luke, eta eremu horietan bi errealitateen arteko dinamika ezartzeko aukera. Alde horretatik, proposatu dute Egitamu Gidariak lur urbanizaezinen garapena ez ezik hiri-lurzoruen eta lurzoru urbanizagarrien garapena ere arau dezakeela, modu horretara Urdaibai Biosfera Erreserbaren lurralde-kudeaketa koherenteagoa eta orekatuagoa izan dadin.

Ekipamenduen gaiari buruz, aipatu dute EKEGak ekipamenduak ezartzeko aurreikusten duen sistema erdi-zurrunda dela eta malgutasun gutxi duela unean-unean sor daitezkeen eskakizunetara egokitzeko. Zonifikazioa bera, 11. artikulua eta Lurralde Ekintzarako Egitamu bat idaztea dira ekipamenduak ezartzeko EKEGak aurreikusten dituen bideak.

LANDA-EREMUETAKO GUNEAK

Mintegietan esku hartu dutenek berretsi dute EKEGean egin zen landa-eremuetako guneen mugatzea eta kalifikazioa ez dela lagungarri izan gunek biziberritzeko ez eta landa-eremuetako bizimoduari eusteko ere; aitzitik, azaldu dute mugatze eta kalifikazio horren eskutik betiko baserriekin zerikusirik ez duten txaletak eraiki direla, inguru horretan berezkoak diren nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak alde batera utzita, eta, halaber, hirigintza-eredu sakabanatua, *urban sprawl* deritzona, sortu dela. Ildo berean, adierazi dute lursailen itxiturak egiterakoan ez dela kontrolik izan eta horrek ere ekarri duela paisaia batere kontuan hartu gabe jokatu izana eta landa-eremuetako gunetan espazio publiko eta pribatuaren artean berezkoa izan den erlazioa ia erabat desagertu izana.

Arazo horiek konpontzeko hainbat irtenbide proposatu dituzte: esaterako, eraikuntza berrien nekazaritza-jarduerarekin lotura beharrezkoa izatea; lurzoru horiek lurzoru urbanizaezinen beste kategoria batean birkalifikatzea (eraikin berririk ez egitea ekarriko luke horrek); ondare eraikia etxebizitzetarako edo beste erabilera batzuetarako optimizatzea; edota paisaia edo kultura aldetik dituzten balioak aintzat hartuta landa-eremuetako zenbait guneri bultzada ematea.

Landa-inguruneetako gunetan eraikitzen diren eraikuntza berriak nekazaritza-jarduerari loturikoak izateko eskakizuna eta neurri horren bidez landa-ingurune horien betidaniko izaerari eustea eta bultzada ematea hizpide harturik, jardunaldiko partaideek proposatu dute beste kategoria bat sortzea, intentsitate txikiko nekazariarena, malgutasun handiagoa emateko, Lurralde Plan Partzialean zehaztutakoarekin bat eginez.

Landa-eremuetako gunek lurzoru urbanizaezinen beste kategoria batzuetan birkalifikatzeko aukera dela eta, neurri horrek eraikuntza berriak egiteko debekua ekarriko luke eta, orobat, betidaniko herriguneetan zuzkiduretarako egokiak izan daitezkeen ekipamenduak eraikitzeke aukera, baina horren harira, partaide batzuek kezkatuta agertu dute gaur egungo legediaren babesean egin diren etxebizitzak zehaztu gabeko egoeran geratuko liratekeelako eta, beraz, etorkizunean arautu egin beharko litzatekeelako eraikin horien egoera, antolamendutik kanpo gera ez daitezen.

Zenbaitek beste aukera bat ere aipatu du: eraikuntza berririk ez egitea, eta etxebizitzak zatituz optimizatzea egungo ondare eraikia. Horretarako, eta horrek lurraldean izan dezakeen eragina balioesteko, beharrezkotzat jo dute azterketa sakon bat egitea, neurri horrek zer ondorio izan dezakeen

jakiteko. Gai horri buruz jardunaldian zehar hainbat iritzi azaldu dituzte partaideek, batez ere ondare eraikia kontserbatzeari buruz eta baserrietan izan daitezkeen erabilerei buruz.

Landa-eremuetako zenbat gunek paisaia aldetik duten balioa aintzat harturik gunek horiek indarberritzeko aukera ere proposatu dute, turismoari eta aisialdiari loturiko jarduerak ezarrita. Horretarako, nolanahi ere, Lurzoruaren Legean aldaketak egin beharko liratekeela berretsi dute; izan ere, lege horrek ez du uzten herrigune horietan ekipamendurik ezartzen.

Era berean, jardunaldian esku hartu dutenen iritziak, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean landa-eremuetako guneei buruzko araubidea ez dago batere egokituta Urdaibai Biosfera Erreserbaren errealitateari eta beharrianetara: gunek horietako biztanleentzat ekipamendu berriak sortzeko aukerari dagokionean, adibidez; ez eta gunek bakoitzaren garapena eta egoera zein den, gunek horiek garatzeko nahiz berriro sailkatzeko edota birkalkifikatzeko aukerari dagokionean ere. Ildo berean, jardunaldian esku hartu duten zenbait kideren arabera, Urdaibaiko landa-eremuetako gunek ez daude egokituta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean xedatutakora, eta, alde horretatik, gunek horien %45ek baino gutxiagok betetzen ditu lege horretan landa-eremuko gunetzat hartzeko bete beharko lituzkeen xedapenak.

Jardunaldian esandakoaren ondorio modura, funtsezkoa da irizpide bat ezartzea gaur egungo landa-eremuetako guneen sendotzea edota garapena arautzeko, betiere Lurzoruaren Legearekin bat eginez, eta beharrezkoa da, halaber, txalet moduko eraikinen garapen berriak geldiaraztea. Horretarako, EKEGa berrikustea hau aukera ona dela nabarmendu dute, tarteko eskalan tresna egokia delako udalerriek elkarlan estuan eta zuzenean landa-eremuetako gunek bakoitzaren egoera zehatz eta sakon aztertzeko, eta beharrezkoa bada, horietako bakoitzean hartu beharreko neurriak hartzeko.

BASERRIA

Baserriak hizpide hartuta eta, zehazki, betidaniko erabilerak alde batera utzi izanaren ondorioz baserrien gaur egungo egoera zer-nolakoa den aztertzen hasita, mintegiko partaideek berretsi dute, alde batetik, etxebizitza ez ezik nekazaritzarako eta abeltzaintzarako gunea izan dela betidanik baserria, baina gaur egun azken bi erabilera horiek alde batera utzi direla, eta, orobat, baserriaren erabilera osagarri horiek eta udal araudia eta teknika bateraezinak direla gaur egun; eta, bestetik, baserri horiek birgaitzea oso nekeza dela bideratzeko, oso garestia delako.

Arazo horiei irtenbidea emateko nagusiki bi aukera iradoki dituzte; nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak desagertzearen ondorioz hutsik geratutako eremuak beste erabilera batzuen bidez betetzea da bi aukera horien funtsa, era horretara baserriari bizirik eutsi ahal izateko.

Lehen aukera bestelako erabilera batzuk ezartzea da, horien bidez landa-eremuan gizarte-harremanak bultzatzeko eta, horrez gain, baserri-multzo edo auzoei zerbitzua emateko: adibidez, inguruko adinekoentzako laguntza-zentroak, denda txikiak edota haurtzaindegia. Turismoari eta aisialdiari loturiko jarduerak ere bultzatu daitezke, hala nola landetxeak, jatetxeak edo interpretazio-zentroak. Erabilera horiei esker, gainera, lanpostuak ere sortuko lirateke.

Beste aukera, baserria etxebizitza gehiagotan zatitzea da, bi helburu lortzeko: batetik, eraikitako ondarea optimizatzea eta finkatzea eta, bestetik, etxebizitza berrien beharra gutxitzea. Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzak azterketa bat eginga du Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Bulego Teknikoarekin elkarlanean baserri motei buruz eta baserriak etxebizitza gehiagotan zatitzeko aukerari buruz, eta, azterketa horren arabera, baserrien ezaugarriek aukera ematen dute egungo etxebizitza kopurua bikoizteko, baina familia bakarreko etxeetan errazagoa da hori egitea bi bizitzako etxeetan baino.

Horren harira, era bateko eta besteko iritziak izan dira: batzuek adierazi dute neurri eta jardun horiek desitxuratu egingo luketela eraikitako ondarea. Guztiek berretsi dute, ordea, jardun horiek arautu egin behar direla, gaur egun inolako baimen eta kontrolik gabe egiten ari direlako, eta legeztatze batere aukerarik gabe.

Era berean, etxebizitzaren edo zuzkiduren presioa areagotzeak lurraldean izan dezakeen eraginari buruz ere jardun dute, bai eta zerbitzurako azpiegitura berriak ezartzeak (saneamendurako, ur-hornidurarako, argindarrerako...) edo bide-sarea hobetzeak ingurumeneari sor dezakeen inpaktuari buruz ere. Horrenbestez, beharrezkotzat jo dute neurri horri buruzko azterketa sakona egitea, lurraldean zer eragin izan dezakeen jakiteko eta, zehazki, zer inpaktu eragin dezakeen ingurumeneari eta egungo oinarritzko zerbitzuetan.

Azkenik, eta zeharka, aipatu dute bateratu egin behar direla EKEGean bildutako ondarearen babes-ordenantzak eta Kultur Ondareari buruzko Legea, baita baserriak zaharberritzeko jardunak eta Lurzoruaren Legea ere. Alde horretatik, gehien-gehienak bat datoz ez dela baimendu behar jatorrizko eraikinen bolumena handitzerik edo eraikitako azalera zabaltzerik. Era berean, Egitamu Gidarian zenbait estrategia ezartzeko aukera ere aztertu dute, estrategia horien bidez paisaia kontserbatzeko, espekulaziorako aurreikuspenen arriskua saihesteko eta ikuspegia muga dezaketen lursailen itxitura motak arautzeko.

ALDERDI JURIDIKOEI BURUZKO MINTEGIA

ERRESERBEN HELBURUA

Biosfera Erreserbek funtsezko hiru helburu hauek bete behar dituzte: kontserbazioa, garapen iraunkorra eta trebakuntza (ingurumen-hezkuntza eta ikerketa). Hori dela eta, Biosfera Erreserbetako Ekintza-programak ez dira parekatu behar bestelako natura-gune babestuek antolatze betiko planekin (PORN eta PRUG), ez eta erkidegoetan horien baliokide diren planekin ere. Natura-gune babestuek, oro har, kontserbazioa dute helburu behinena eta eginkizun horixe betetzen dute. Biosfera Erreserbetan, aldiz, hiru helburuetako bat baino ez da kontserbazioa, eta beste biek (garapen iraunkorra eta ikerketa eta ingurumen-hezkuntza) bateratu behar da.

Biosfera Erreserbak, UNESCOren MaB Programaren definizioan jasotakoaren arabera, eremu egokiak dira ikerketa aplikatuak eta iraunkortasunerako politika aktiboen prospekzioak egiteko, eta hala baliatu behar dira, gerora ikerketa horien emaitzak eta politika aktibo horiek lurralde osora hedatzeko. Izaera hori 5/1989 Legearen arauetan hezurmamitzen da Urdaibairako. Lurraldea antolatze eta ingurumena babesteko gidari izan diren printzipioak ditu oinarrian lege horrek. Legeak hartutako metodologia lurraldea zonifikazioa da: hala, Babes Bereziko hiru Eremu zehazten ditu, eta Urdaibai Biosfera Erreserbako gainerako lurzorua antolamendua 5/1989 Legeak berak 15. artikuluan aurreikusten duen garapenerako uzten du, ingurune fisikoko matrizeen metodologia mantenduz. Ondoren, 1997. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolamendurako Arauek (LAA) EAE osorako erabileren matrizeak hartu zituzten oinarri eta eredu, ingurune fisikoan zer erabilera eta jardun baimendu erabakitze. Erabileren matrize horiek lotesleak ziren eta hirigintza-plangintzarako tresna guztietan zuzenean aplikatzekoak; eta, horrez gainera, LAAen gaineko *"Baldintza Gainjarritzat"* katalogatzen zuten Urdaibaiko EKEGa.

Printzipio horiei jarraituz, jardunaldian esku hartu duten eragileek beharrezkotzat jo dute iraunkortasunerako irizpide nagusi eta espezifikoek ekarpena egitea, eskumena duten Administrazioek nahieran joka ez dezaten Urdaibai Biosfera Erreserbari eragin diezaioketen planak, programak edo

proiektuak onartzerakoan. Ulertzeko moduko araudia landu behar da, eta eraginkorra. Araubide horrek kontserbaziorako helburuak finkatu behar ditu (horretarako gaur egungo EKEGak orientabide baliagarriak eskaintzen ditu) baita garapen iraunkorrerako estrategia berritzaileak ere, lurralde osorako eredugarri izan daitezkeenak. Azken horretarako, oinarri egokia izan daitezke lurzoruaren antolamendu iraunkorrarekin loturiko printzipioak, Espainiako Lurzoruari buruzko legearen Testu Bateratuan eta EAEko Lurzoruari buruzko Legean jasotakoak, eta horiez gain, baita ingurumenaren aldagaia jarduera ekonomikoan aintzat hartzeko Landa Garapen Iraunkorrari buruzko eta Ekonomia Iraunkorrari buruzko legeetan (2/2011 Legea, martxoaren 4koa) ondorioztatzen diren jarraibideak ere.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako EKEGa berrikustea aukera ona da egitamu hori Espainiako Biosfera Erreserba Sarearen 2009-2013 Montsenyko Ekintza Planean (PAMO) zehaztutako erronka eta araudira egokitzeko. MaB Programaren Espainiako Batzordeak onartu zuen PAMO, 2010. urtean. Estatua eta autonomia-erkidego guztiak lotzen dituen konpromisoak garatzen dira plan horretan.

Eta zehazten diren erronketako bat da zonifikazioa biosfera-erreserbetako hiru eremu bereizgarrien definiziora moldatzea. Hauek dira hiru eremu horiek: nukleo, tanpoi eta trantsizio eremuak. UNESCOren MaB Programak ezarritako baldintzen arabera, zonifikazioaren egokitze horrek eginda behar du 2013. urterako.

LURZORUAREN ETA LURPEKO ARAUDIA ETA KUDEAKETA

Erreserbako eremuak kudeatzeko koordinazioa behar da, eta lurralde antolamenduak ematen duen ikuspegi globalean lortu behar da koordinazio hori. Hain zuzen, kudeaketari begira, zentzuzkoagoa litzateke hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta urbanizaezina modu bateratuan jorratzea. EKEGaren gaur egungo aplikazio-eremua ezpaltua izan daiteke kudeaketa arloko ekintzak koordinatzeko; izan ere, egitamu gidari horrek lurzoru urbanizaezina baino ez du arautzen. Hori dela eta, interesgarritzat jo dute EKEGaren aplikazio-eremua Urdaibai Biosfera Erreserba osoa izateko aukera.

Gai horren harira, hirigintza-planeamenduak Antolatu beharreko eremuen (HPA) barruan lurzoru urbanizaezinak kalifikatzeko aukera planteatu dute mintegian. HPA eremu bat eremu urbanizaezin modura kalifikatuz gero, Biosfera Erreserbetako zonifikazio bereziaren arabera jaso beharko litzateke eremu hori EKEGean.

Bestalde, aipatu dute EKEGak hirigintza-plangintzaren bidez antolatu beharreko lurzorutzat hartu beharko litzuzkeela Urdaibaiko Legea indarrean sartu zenean hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarri modura sailkatuta zeuden lurzoru guztiak, eta hori oraindik ez dela egin.

Nolanahi dela ere, itxura batean ez dago argi zein erakundek duen eskumena kalifikazio hori egiteko.

Lurraldearen Antolamendurako Arau berrietan Urdaibaiko HPAREN antzeko figura bat ezarriko da, *hiri-hazkunderako perimetra* deritzona. Hirien hazkunderari begira iraunkortasun-irizpidea ezarriko du perimetro horrek eta loteslea izango da Lurralde Plan Partzialetarako (LPPak).

Bestalde, hiri-lurzorua zabaltzeko aukerari buruz, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak dio lurzoru urbanizaezin eta babestua ezin dela berriro sailkatu horretarako arrazoi garrantzitsurik ez bada.

Nekazaritza-lurren kalifikazioari dagokionez, Nekazaritza eta Nekazaritzako Elikagaien Politikarako Legea hartu behar da kontuan lurzoru horiek kudeatzeko; izan ere, lege horrek lurzoru horiek babestu eta Lurraldearen Antolamenduarekin lotzen ditu. Nekazaritzarako Lurraldearen Antolamendurako Arloko Planak, halaber, nekazaritza-lurren gaineko eragina aztertzeko protokolo bat ezartzen du eta horren arabera erabakitzen du zein egoeratan baimendu behar den ala ez nekazaritza-lurrak beste erabilera baterako kalifikatzea.

Kudeaketa arloko erabaki eta esku-hartze guztietan zorupea kontzeptua jaso behar da. Alde batetik, edafologiaren ikuspegitik, lurzorua ez da soilik gainazalekoa; aitzitik, lurzoruaren entitateak sakontasun-maila bateraino hartzen du. Lurzoruaren egitura bertikala gutxi aztertu da eta, horren ondorioz, zorupea ez da Biosfera Erreserbaren osagaitzat hartzen; hots, ez da eremu babestutzat hartzen. Alabaina, lurzoruaren sakonera oso garrantzitsua da ekosistemen funtzionamendurako, akuiferoen hauskortasunerako, etab. Ura gordetzeko biltegi eta harrobi bihurtzeko baliabide ere bada lur azpia, eta, horrez gain, geologia eta arkeologia aldetik intereseakoak izan daitezkeen eremuak ere aintzat hartu behar dira. Gainera, nekazaritzako landaketetarako oso emankorrak diren lurzoruak babesten direlarik, zorupea ere babestu egin behar da. Zorupea babestea eta kudeatzea, horrenbestez, kontuan hartu behar da EKEG berrian.

Bestalde, hirigintza-plana bera balia daiteke zorupearen hirigintza-antolamendua egiteko ere. Lurzorua eta zorupea antolatzeko irizpideak ezar ditzake plan horrek, eta, hala, hor ezarritakoaren arabera egin behar da aprobetxamenduak.

DOKUMENTUEN ARTEKO KOORDINAZIOA

EAEko lurraldearen antolamenduari buruz, bai Urdaibaiko 5/89 Legeak eta bai EAEko Lurralde Antolamendurako 4/90 Legeak *koordinazioaren printzipioa* azpimarratzen dute. Garrantzitsua da koordinazioa, ingurune fisiko berean eragiten duten alorreko politiketarako, eta EAEn erakunde batzuek eta besteek (Erakunde erkideak, Lurralde Historikoak eta Tokiko Udalbatzarrak) izan ditzaketen eskumen edo aginpide bateratuak aintzat hartzeko. Koordinazioari buruzko oinarritzko printzipio hori berriro jaso da Lurraldearen Antolamendurako Arauetan.

Beharrezkotzat jo da dokumentu eta araudi guztiak koordinatzea eta bateratzea: LPPak, EKEGa eta Lurzoruaren Legea. Eta koordinazio hori lortzeko ahalegina egin behar da bai lurraldearen antolamendurako beharrezkoa den ikuspegi globalean, bai eta Erreserban esku hartzen duten erakunde eta eragile guztien arteko parte-hartzean eta administrazio-arteko koordinazioan ere. Egokiera ona da dena barnean bilduko duen dokumentu bakar bat sortzeko; izan ere, agiri horiek berrikusteko edo onartzeko fasean daude.

KBEak (Kontserbazio Bereziko Eremuak) eta HBBeak (Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak) arautzeko dekretu berriaren harira, eta EKEGa dekretu horretara egokitzeko aukerari dagokionez, egokiena litzateke Erreserba, Natura 2000 Sarea eta LPPa dokumentu bakar batean bateratzea. Natura 2000 Sarea integratuko duen tresna EKEGa izatea da proposamen logikoena. Gaur egun Urdaibaiko Babes Bereziko Eremuak eta KBEak bat datoz ia, ibai-sareko KBE izan ezik, hori Babes Eremua baita. Urdaibaiko ibai-sarea nukleo kategoriara eraman beharko litzateke eta, hori eginez gero, tanpoi-gune bat ere bildu beharko litzateke, baina horretarako beharrezkoa litzateke Legea aldatzea.

Agiri batzuen eta besteen artean zeinek izan behar duen lehentasuna hizpide hartuta, oro har, onartu dute ingurumen-antolamenduak izan behar duela lehentasuna bestelako araudiekin gatazkarik sortuz gero. Esate baterako, Lurraldearen Antolamendurako Arauetan, baldintza gainjarria da EKEGa. Bada integrazioarako beste arau bat, denborarena; hau da, azkenak lehentasuna izango du beti aurrekoaren gainean.

EKEGak LPPen gain duen lehentasunari buruz, eztabaidarako gai izan da lehentasun hori soilik babes bereziko eremuetan ezarri behar ote den (horrela berresten duten txosten juridikoak badirela aipatu dute), edo Erreserbaren lurralde osorako ezarri behar ote den. Egitamu Gidariak lehentasuna izan behar du ingurumen arloko araudiari dagozkion gaietan. Lurraldearen eta hirigintzaren antolamenduari loturiko gaietan, berriz, Lurzoruaren Legeak izan beharko luke lehentasuna.

Zenbait kasutan, itxura batean, araudiak kontrajarriak dira, hala nola Lurzoruaren Legearen eta EKEGaren kasuan. Araubide horiek xehetasun handiagoz aztertuz gero, ordea, ez dago kontraesanik: Legeak gutxieneko batzuk ezartzen ditu, baina EKEGak zorrotzago joka dezake eta Legeak baino eskakizun handiagoak ezar ditzake.

Eztabaidaezina da, halaber, EKEGaren ondotik sortutako legeak plan horretara bildu behar direla.

Laburbilduz: ahalegina egin behar da gauzak errazteko eta ados jartzeko, eta, horretarako, ezinbestekoa da argitzea zein araudik izango duen lehentasuna. Urdaibairako beste araudi bat egin behar da, gaur egungoa baino samurragoa eta malguagoa; *ideien laborategia* funtsarekin egiaz bat etorriko den araudia.

Alde horretatik, aurreikusi da EKEGean zenbait aldaketa egiteko beharrezkoa izango dela Urdaibaiko Legean ere aldaketak egitea. Hala izanez gero, administrazioak zer printzipio eta helbururen arabera jardun behar duen erabaki eta finkatu beharko litzateke.

KUDEAKETA-ORGANOAK

Patronatua funtsezko organoa da erreserba kudeatzeko. Mintegian esku hartu duten eragileen iritziz, administrazioen arteko koordinaziorako eta partaidetzarako organismotzat hartu behar da Patronatua, eta, alde horretatik, EKEGaren printzipio gidariak eta sektore bakoitzarenak koordinatzeko aukera eman behar du organo horrek.

Beste ikuspegi batetik, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legearen 67. c) artikulua dio *antolakuntza-mailan*, biosfera-erreserbek *kudeaketa-organo bat* izan behar dutela, *estrategiez, jarduera-ildoez eta programez arduratzeko*. Beraz, baldintza hori aintzat harturik, *organotzat* hartu behar dugu erakundeen arteko halako batasuna biltzen duen entitatea, era bateko eta besteko eragileei lekua egiten diena, inolaz ere ahaztu gabe tartean diren Erakunde erkideen, Lurralde Historikoen eta Tokiko erakundeen arteko eskumenen barne-banaketa eta horien parte-hartzea.

Urdaibai Biosfera Erreserba lurraldearen antolamendu iraunkorrerako eredua da eta, Patronatua, berriz, erreserba horretarako erakunde-arteko koordinaziorako organoa. Hori horrela dela aintzat hartzeko, ordea, beharrezkoa da bi arazo konpontzea: arloko politiken arteko koordinazio faltarena, batetik, eta gobernantzarena, bestetik. Kontuan hartu behar da arloko politika horiek lurraldean duten eragina, eta, beraz, politika horiek osotasun koherente bat osatu behar dute.

Beharrezkoa da Patronatuak zer eginkizun izango duen zehaztea, eta zeregin horien artean daude koordinazioa eta integrazioa. Horrez gain, egokia litzateke gai batzuetan erabaki lotesleak hartzeko eskumena ematea Patronatuari. Horretarako, interesgarritzat jo dute patronatuari izaera juridikoa eta erabakiak hartzeko ahalmen handiagoa ematea. Nolanahi ere, aipatu dute aukera hori aztertu zela bere garaian, eta hori egitekotan, Legea aldatu beharko litzatekeela.

Bestalde, txostenak eta baimenak jaulkitzeari buruz, plangintzaren aldaketak, batetik, eta baimen hutsak direnak, bestetik, bereizi egin beharko lirateke. Gaur egun, aldaketei dagokionez, lurraldearen antolamendurako batzordeak bere egiten ditu patronatuaren txostenak, eta lotesle bihurtzen ditu. Baimenei dagokionez, aldiz, patronatuaren txostenak ez dira lotesleak. Mintegiko partaideen iritziz zehaztu egin beharko lirateke garrantzi txikiagoko zenbait gai, udalek horien gain baimenak emateko eskumena izan dezaten. Horrek erraztu egingo luke kudeaketa; izan ere, lizentziatarako epeak gero eta motzagoak dira eta, hala, patronatuaren batzorde iraunkorra biltzeko datak ez dira epe horietara egokitzen. Udalek berek epearen barruan egin ditzakete txostenak, badutelako EKEGaren ezagutza. Emandako lizentzietan legezkotasun aldetik arazorik sortuko balitz, legezkotasuna betetzen ez duten

lizentzia horien kontra egiteko aukera egongo litzateke, gerora. Beharrezkoa da, orobat, txostenen jarraipena egiteko bideak ezartzea; izan ere, askotan, ez dira kontuan hartzen obra gauzatzerakoan.

Beste alde batetik, beharrezkotzat jo dute elkarteen, udalen eta bestelako erakundeen parte-hartzea arautzeko berariazko atal bat sortzea. Baita sektoreen arabera batzorde teknikoak eta patronatutik aparteko batzorde zientifiko bat sortzeko aukera aintzat hartzea ere.

Biosfera Erreserbaren Ekintza Plan batean, garrantzitsua zera da: iragaite-guneetako jarduera ekonomikoen garapena antolatzea, eta hondakinen kudeaketa, mugikortasun, energia eta abarrei dagokienez sormenez jokatzeko. Alderdi horiek guztiak jorratuko litzuzkeen EKEGa egin beharko litzateke.

Metodologia juridikoko eta prozedurazko alderdiak gehiago zehaztu beharko litzuzke EKEG berriak.

PROPOSAMENAK

BABES BEREZIKO EREMU ETA BABES EREMUEI BURUZKO MINTEGIA

1.1. Natura kontserbatzeko eta ingurumen-baliabideak modu iraunkorrean erabiltzeko helburu nagusiak betetzen lagun dezaketen kontzeptuak testuan jasotzea: emari ekologikoa, korridore ekologikoa, espezie mehatxatuak, kutsadura akustikoa, argi-kutsadura.

1.2. *Nukleo*, *tanpoi* eta *trantsizio gune* kontzeptuak jasotzea, bai eta gaur egungo zonifikazioan horien baliokide direnak ere (horrela badagokio).

1.3. Aurreko EKEGeen aurreikusi eta oraindik garatu gabeko Lurralde Ekintzarako Egitamuek (LEE) garatzea, itsasadarren eta itsasertzaren LEE edota ibai-sarearena, besteak beste.

1.4. Ikerketa zientifikoa bultzatzea, ikerketaren alderdi guztiak hain zuzen, ezaguera horiek erreserbaren kudeaketarako baliatzeko, eta aholkularitza iraunkorrerako bideak zehaztea.

1.5. Maiztasun jakineko diagnostikoak eta jarraipen-planak lantzea.

1.6. Ingurumen zaintza ezartzea, hartutako neurri guztiak betetzen direla egiaztatzeko.

ITSASADARRA ETA ITSASERTZA

1.7. Itsasadarreko eremuak mugatzea, eremu bakoitzak aisialdiko jarduerak hartzeko duen gaitasunaren arabera.

1.8. Hegazkinen hegaldien altuera mugatzea, itsasadarreko, itsasertzeko eta artadi kantauriarretako babes bereziko eremuen gainean gutxienez 500 metroko altuerara.

1.9. Itsasontzi motordunen zirkulazioa arautzea, eta berariazko baimena behar izatea Busturipunte eta Kanalako ontziolaren arteko lerrotik gorako uretan.

1.10. Itsasontzi-mota guztien zirkulazioa kanal nagusiaren erdialdera mugatzea, bai motordunena eta bai motorrik gabeena.

1.11. Portuetatik kanpo amarratzeko eta ainguratzeko lekuak arautzea.

1.12. Aisialdiko zenbait jardura erregulatzea; parapente, kometa, kitesurf, windsurf eta antzeko gailuen beharra duten jarduerak, hain zuzen.

1.13. Desagerrarazi beharreko espezie aloktono inbaditzaileen zerrenda bat zehaztea. Landare- eta animalia-espezie horiek erabat debekatuta geratu behar dute Urdaibain.

1.14. EKEGean jasotzea Urdaibaiko nukleo eta tanpoi gunetako Lurralde Ekintzarako Egitamua, baita ibai-sarekoak ere Urdaibai aldeko KBE eta HBBE eremuen Kudeaketa Plantzat hartuko direla.

1.15. Arau orokor modura dragatzerik ez egitea. Arrazoi ekonomikoak direla-eta dragatzeak egitea beharrezkoa bada, behar den moduan justifikatu beharko dira, eta kanalak duen meandro formako ibilbideari jarraituz egin beharko dira.

1.16. Itsas-lehorreko Jabari Publikoaren babes zorpeko aldea kartografian jasotzea.

1.17. Klima-aldaketak ekosistema eta espezieengan duen eragina aintzat hartzea, eta arazo hori arintzeko edo aldaketa horretara egokitzeko neurriak hartzea.

1.18. Ikerketarako eta ingurumen-hezkuntzarako plan bat garatzea.

ERREKA ERTZAK

1.19. Ibai-sarearen Lurralde Ekintzarako Egitamua (LEE) lantzea.

1.20. Urdaibaiko ibai-sarearen Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) Kudeaketa Plana EKEG berrian jasotzea, arroaren goi-ibarreko basoak ere bilduz.

1.21. Ibai-sarean babes bereziko eremuak mugarriztatzea, Plan Hidrologikoak zehazten duen moduan.

1.22. Ibaiei KBEren Kudeaketa Planeko irizpideak eta Euskal Herriko Barneko Arroen Plan Hidrologiko berrian (PHCCII) jasotakoak bateratzea.

1.23. Hornidurako LEE bat ezartzea, eta hor jasotzea egun dauden ur-bilketa puntuen babes-perimetroak eta falta direnak zehaztea, Gernikako akuiferoa barnean hartuta.

1.24. 2007ko Uholdeen Prebentziorako Plan Osoaren aurreikuspena jasotzea.

ARTADI KANTAUARIARRAK ETA HARIZTI ATLANTIKOA

1.25. Eragin kaltegarrii aurre hartzera bideratutako jarduerak lehenestea, eragin kaltegarri horiek arintzeko eta lehengoratzeko neurriak hartzea ahaztu gabe.

1.26. Erabilera-mugak direla medio beren lurren gaineko eskubideak murriztuta izan ditzaketen jabeen kalte-ordainak emateko neurriak hartzea.

1.27. Artadi kantauriarreko eremuetan eukaliptoekin eginiko landaketak eta existitzen diren landaketen mantentzea debekatzea (baita itsasadarreko eta itsasertzeko indargetze-eremuetan ere).

1.28. Lurraren zaintza eta ingurumen-zerbitzuen truke ordainketak egiteko formulak ezartzea, artadi kantauriarra kontserbatzeko eta lehengoratzeko.

1.29. Gaur egungo basozaintzarako diru-laguntzen sistema orientatzea eta laguntza batzuk lehengoratzeko-ekintzetara bideratzea.

1.30. EKEGean lursailak erosteko eta kalte-ordainak emateko aurrekontu bat bideratzea.

1.31. Harizti atlantikoen portzentajea gainazalaren %20ra irits dadin lortzea (proposamen hori jasotzen zen jada aurreko EKEGen, baina ez da gauzatu).

1.32. KBEak kontserbatzeko neurriak jasotzea eta artadi kantauiarren LEErekin osagarri bihurtzea.

1.33. *Ingurumen aldetik Eremu Kaltebera* kontzeptua jasotzea, bai eta indarrean den legedian ingurumen eraginaren ebaluazioa egiteko aurreikusten diren tresnak ere.

GEODIBERTSITATEA

1.34. Urdaibaiko helburu nagusien artean geodibertsitatea sartzea.

1.35. Interes Geologikoko Eremuen (IGE) babesa jasotzea, baita Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Geodibertsitateko Estrategian zehaztutakoa ere.

1.36. Geodibertsitateari begira gaikako kartografia zehatz bat egitea, eta lurraldearen beste balio batzuekin uztartzea kartografia hori.

1.37. Urdaibaiko geodibertsitateari buruzko ikerketa, hezkuntza eta dibulgazioa bultzatzea.

ARKEOLOGIA

1.38. Aztarnategi arkeologikoen beste sailkapen bat egitea, horien interesa ebaluatzeko eta sailkatzeko.

1.39. Historiaurreko kokagune baliotsuenetan egitea kontserbaziorako ahalegin handiena, eta jabeen ezarritako mugak eta kargak murriztea.

1.40. Aztarnategi arkeologikoen babes bereziko eremuetan telekomunikaziorako instalazioak, energia sortzekoak, bideratzeak eta antzerakoak debekatzea.

1.41. Hainbat babes-maila ezartzea eta bi kategoria berri hauek sartzea: *Aztarna Arkeologikoa* eta *Geologia-Arkeologia aldetik Intereseko Eremua*.

1.42. Babestu beharreko lekuen katalogo zehatz bat egitea, kasu praktikoetarako erabilgarria; obren inpaktuei aurre hartzeko, esaterako.

1.43. Kultura Ondare Orokorrari buruzko katalogo global bat egitea, eta hor jasotzea ondare ez-materiala (hizkuntza, errituak, dantzak, etab.).

1.44. Orain arte eskuratutako informazioa eguneratzea eta arkeologiaren eta beste arlo batzuen arteko mugak zehaztea, mugen inguruan adostasunera iristeko.

1.45. Urdaibaiko Kultura Ondarearen Inbentarioko informazioa jasotzea.

PAISAIA

1.46. Nekazaritza-jardun iraunkorrak bultzatzea eta, modu horretara, zeharka, Urdaibaiko paisaia kulturalari eustea.

1.47. Urdaibaiko korridore ekologikoen sarea jasotzea, eta sare hori itsasertzeko eremuekin osatzea, horretara bilduz marearteko zabalgunekak, harri-blokeen hondartzak (*lapatzak*) eta uharrien hondartzak (*harribolak*).

1.48. Eraikuntza berririk ez baimentzea, ez badira nekazaritza-jarduerarako izango.

1.49. Metalezko hesiak eta landarez eginikoak arautzea, ikusmirarako oztopo izan daitezkeelako; eta landarezko hesien kasuan, erabilitako espeziea zehaztea.

1.50. Paisaiaren Legearen bidez eta (onartzen denean) lege horretatik eratorriko den araudiaren bidez, hiru eremu funtzionaletan egiten ari diren paisaia-katalogoak jasotzea.

1.51. Jarraibideak ikuspegi oso batetik jorratzea eta ikuspegi horren barnean biltzea balio ez-materialak, kulturalak, sinbolikoak eta espiritualak.

INTERES HISTORIKO-ARTISTIKOA DUTEN ERAIKINAK

1.52. Ondare historiko-artistikoaren balioa nabarmentzea, eta erakundeetatik laguntzak ematea ondare hori babeste aldera beharrezkoak diren zaharberritzeak egiteko.

1.53. Eraikinen dokumentazio historikoa egiteko metodologia bat lantzea (egokia litzateke azterketa sinkronikoen planoak izatea, identifika daitezkeen garai eta epeetakoak, baita diakronikoak, dinamikoak eta eboluzioa adieraz dezaketenak ere).

1.54. Egun dauden eraikinen katalogoak egitea.

1.55. Aldaketak edo zaharberritzeak egiterakoan, eraikinen historia errespetatzea.

1.56. Esku-hartze berritzaile ez-erasokorrak baimentzea, eta behin esku-hartzea amaitzean erreferentzia historikoen edo bestelakoen dokumentazioa jasotzea.

1.57. Ondarearen beste kontzeptu batzuk zabaltzea, hala nola ondare etnografikoa, lan publikoa, industrialak edo ondare higigarria kontzeptuak.

1.58. Lege hauek hartzea eraikin historiko-artistikoetarako legezko erreferentziatzat: Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/90 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea eta Urdaibai Babesteko eta Antolatze 5/89 Legea.

NEKAZARITZARAKO ETA BASOGINTZARAKO INTERESA DUTEN EREMUEI, TURISMOARI ETA ENERGIARI BURUZKO MINTEGIA

NEKAZAL GARRANTZIKO EREMUA

2.1. Ingurumena errespetatuko duen nekazaritza garatzea, betikoa eta ekologikoa.

2.2. Landa-inguruneetan garraio- eta kultura-azpiegiturak garatzea.

2.3. Pizgarriak ezartzea lurjabe pribatuek nekazaritzarako lurren bankua sortzen parte har dezaten.

2.4. Kalitate-markak (eko etiketak), tokiko merkatuak eta eraldaketarako industriak bultzatzea, bertako produktuen kontsumoa sustatzeko.

2.5. Lurraldea zaintzeko kontratuak bultzatzea.

2.6. Turismo-sektorearen eta nekazaritza-sektorearen artean sinergiak sortzea.

2.7. Kalte gehien sortzen duten nekazaritza-jardueren ekotasia bat ezartzeko aukera aztertzea.

2.8. Nekazaritzarako interesekoak diren eremuen LEE (Lurralde Ekintzarako Egitamua) eta PADAS programaren Nekazaritza Sektoreko Plana garatzea.

BASOGINTZARAKO INTERESA DUTEN EREMUAK

2.9. Baso-landaketen errentagarritasuna eta baso-ekosistemen funtzio ugariak bateratzea.

2.10. Ibai-arroak babeste aldera, baso-landaketei ezarritako distantziak betetzea.

2.11. Administrazio-prozedurak arintzea eraikuntzan egurraren erabilera bultzatzeko.

2.12. Makina astunekin egurra ateratzeko teknikak, baso-soilketak eta %30etik gorako maldetan lerrokako zoruberriak saihestea.

2.13. Pistak hobetzea eta kontrolik gabe egurra ateratzeko bideak saihestea.

2.14. Kalte-ordain ekonomikoen bidez lurjabeei konpentsazioa emateko tresna egokiak ezartzea, jardueraren batek haien eskubideak urratuz gero.

2.15. Nekazaritza eta Basogintzako Plan bat lantzea, baso-eremuen LEE eta Sektore Plana garatze aldera oinarriak ezartzeko.

TURISMOA ETA MERKATARITZA

2.16. Turismo-eredu jakin bat garatzea, Urdaibaik kultura, ingurumen eta gizarte aldetik dituen balioetan oinarrituz eta *turismo-produktu kulturala* eta *turismo-produktu berdea* ildoari jarraituz.

2.17. Turismorako gaitasuna sustatzea gerentzia- eta ostalaritza-arloetan.

2.18. Eskaintza turistikoa egituratzea eta zabaltzea (touring, gastronomia, ardoak, abenturazko turismoa, turismo etnikoa, etab.), bisitariak udaldian ez ezik gainerako urtarotan ere jo dezaten Urdaibaira.

2.19. Trenaren eta ferryren erabilera sustatzea, baita autoa utzi eta joan-etorriko autobusetan hondartzetara hurbiltzeko aukera emango duten aparkalekuena ere.

2.20. Aisialdi-eskaintza garatzea Urdaibain bizi direnentzako eta bigarren etxebizitza dutenentzako.

2.21. Turismoa erabiltzea landa-ingurunea garatzeko eta lehen sektorearen diru-iturriak zabaltzeko (kanpatzeko lekuak baserrietan, etab.).

2.22. Kultura-ekipamenduak finkatzea, bai eta turismo aktiborako, surflariantzako, erromesentzako, ezinduentzako eta abarrentzako ekipamenduak ere.

2.23. EKEG berritzeko prozesua koordinatzea eta, zeregin horren barruan, nekazaritza-lurra eta hiri-lurra jorratuko dituen estrategia turistikoa zehaztea.

2.24. *Turismo Iraunkorreko Europako Gutuna* eta Biosfera Erreserben Sareak turismoaren arloan bultzatutako ekimenak aintzat hartzea eta haiekin bat egitea.

INDUSTRIA ETA ENERGIA

- 2.25. Energia-eraginkortasunari loturiko ekintzak ezartzea; esaterako, kaleko argiztapena berritzea eta energia aldetik sistema eraginkorragoa ezartzea.
- 2.26. Partikularrek energia berriztagarriak (geotermia, haize-sorgailu edo errota txikiak, eguzki-panelak, etab.) erabiltzeko diru-laguntzak gehitzea, aurrez bideragarritasun-azterketa eginda.
- 2.27. Energia elektrikoak (eolikoa, fotovoltaikoa, etab.) ezartzeko araudia malgutztea, gaur egungo araudiak eragotzi egiten baitu horiek ezartzea.
- 2.28. Inbertsio zehatzen bidez eraikin publikoetan energia fotovoltaikoaren erabilera bultzatzea.
- 2.29. Energia berriztagarriak ekoizteko instalazioei buruzko araudia ezartzea, ingurumenean kalterik ez sortzeko. Batez ere instalazio industrialek bete beharko lukete araudi hori.
- 2.30. Gaur egungo EKEGak ez du energia berriztagarriak instalatzea aintzat hartzen, eta, horrenbestez, beharrezkoa da plana berritzerakoan aukera hori kontuan hartzea.
- 2.31. Urdaibairako Plan Estrategikoaren proposamena (2008) berrikustea. Energiari loturiko proiektuak lantzeko Euskadiko Energia Estrategia erreferentziatzen hartzea. Egun, onartzeko bidean da estrategia hori.
- 2.32. Urdaibairako energia-estrategia iraunkorra ezartzea, erreserba iraunkortasunerako laborategitza harturik energiaren arlo horretan ere. Erabili gabeko industria-lurzoruan energiarekin loturiko industria iraunkorra garatzea litzateke aukeretako bat.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDUARI BURUZKO MINTEGIA

GAI OROKORRAK

- 3.1. Lurralde Ekintzarako Egitamuk (LEE) garatzea, plan horiek garatuko dituzten eragileak zehaztea eta horretarako aurrekontu bat egokitzea.
- 3.2. Egitamu Gidariaren jarraipena egiteko programa bat ezartzea, eta horretarako, zenbait helburu neurgarri proposatzea, adierazle lana egin dezaketen helburu horien bidez EKEGa zenbateraino betetzen den jakiteko.
- 3.3. Dokumentua sinplifikatzea eta eskema moduan azaltzea, erabileren matrize baten bidez errazago ulertzeko eta aplikatzeko.
- 3.4. Urdaibai Biosfera Erreserbaren eremuan eskumenak dituzten erakunde guztien arteko koordinazioa bultzatzea eta bereziki tokiko erakundeekin, lurraldearen antolamendurako tresna egokia lantzeko. Gernika-Markina Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren eta Udaletako Hirigintza-antolamendu Plan Orokorren artean tarteko gobernantza-eredua eta lurralde-eskala izan beharko luke oinarrian tresna horrek.

MUGIKORTASUNA

- 3.5. Urdaibaiko Biosfera Erreserban Mugikortasun Iraunkorreko Plan bat lantzea.
- 3.6. Oinez eta bizikletaz ibiltzeko garraiobideak erraztea mugikortasun geldoko estrategia baten bidez.

3.7. Garraibide publikoa sustatzea, izan daitezkeen konponbideak zehatzago aztertuta.

3.8. Udaldian sortzen diren mugikortasun-arazoak konpontzea horretarako autoa utzi eta joan-etorriko autobus merkeen bidez loturiko aparkalekuak sortuta, edota egungo instalazioak birplanteatuta.

HIRIGINTZA-PLANEAMENDUAK ANTOLATU BEHARREKO EREMUAK (HPA) ETA SISTEMA-EREMUAK

3.9. Hiri-lurzoruak eta lurzoru urbanizagarriak berriro interpretatzea, Lurralde Plan Partzialean eta Lurraldearen Antolamendurako Arauetan bildutako proposamenei begira, eta, hala, lurzoru urbanizaezinak okupatzeko aukera jasotzea, izan daitezkeen hazkundeak ahalbidetzeko edo aurreikusteko.

3.10. Lurzoru urbanizaezinen artean sailkatutako lurak HPA lurzoruetan integratzeko aukera aztertzea, tarteko eremuak sortzeko eta, era horretara, bi lurzoru mota horien arteko muga leuntzeko. Horretarako, beharrezkoa litzateke eremu horiek biosfera erreserben zonifikazio berezira egokitzea.

3.11. Gernika-Lumoko ibarrean ekonomia-jarduera berriak ezartzeko moduko industria-lurzoruak badirela aintzat hartzea, industria-lurzoru gehiago sortzen aritu ordez.

3.12. EKEGak ekipamenduak ezartzeko eta sor daitezkeen eskakizunetara egokitzeko duen sistema malgutzea.

3.13. Ikuspegia zabaltzea eta ingurumenaren aldagaia hirigintza-garapenean aintzat hartzea, ibai-arroen kasuan, adibidez; hau da, eremu horiek oztopotzat hartu beharrean lurraldearen osagaitzat hartzea.

3.14. "Eraikigarritasun-merkatuak" sortzea lurzoru urbanizaezinen gaineko hirigintza-presioa arintzeko, eta horien bidez lur urbanizaezinetan izan daitezkeen erabilerak aurreikusteko eta aprobeitxamendu horiek hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri modura sailkatutakoetan gauatzeko.

LANDA-EREMUKO GUNEAK

3.15. EKEGaren eta EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen artean dauden kontraesanak zuzentzea; izan ere, ekipamenduak sortzeari, eraikin kopuruari eta eraikigarritasunari edota zatiketa horizontalari dagokionez ez datoz bat bi dokumentuak.

3.16. Gaur egungo landa-eremuetako guneak sendotzeko irizpide bat ezartzea, betiere Lurzoruaren Legearekin bat etorriz, eta garapen berrien aukera geldiaraztea.

3.17. Landa-eremuetako guneetako lursailen itxiturak mugatzea, ingurune horietako berezko eremu publikoa ukatzen duten heinean.

3.18. Landa-eremuko guneetako eraikuntza berriak nekazaritza-jarduera bati loturikoak izateko exigentzia aztertzea.

3.19. Intentsitate txikiko nekazariaren kategoria sortzea, asentamenduei malgutasun handiagoa emateko.

3.20. Paisaia aldetik balio handia duten landa-eremuetako guneak bultzatzea, horietan turismoari eta aisialdiari loturiko jarduerak ezartzeko, nahiz eta horretarako Lurzoruaren Legean aldaketak egin behar izan edo bestelako tresnak bilatu behar izan.

3.21. Landa-eremuetako gune horiek lurzoru urbanizaezinen beste kategoria batzuetan birkalifikatzea; izan ere, horrek eraikuntza berriak egiteko debekua ekarriko luke, baita ekipamenduak eraikitzeo aukera ere. Nolanahi ere, aintzat hartu beharko litzateke zer erabilera dagoen baimenduta, orain arte egin diren etxebizitzak antolamendutik kanpo gera ez daitezen.

3.22. Jada eraikita dauden etxebizitzak zatikatuz eraikitako ondarea optimizatzea, betiere hirigintza aldetik azterketa bat eginda, zatitze horrek zer eragin izango lukeen balioesteko.

3.23. Landa-eremuko gune bakoitzaren egoera zehaztasun osoz aztertzea eta bakoitzerako irtenbide egokiena erabakitzea, betiere txaleten ugaritzea saihestuz.

BASERRIA

3.24. Baserrietako gaur egungo bolumenen barneko azalera hutsak okupatzeko aukera ematea, neurri horren bidez ondarea gorde ahal izateko.

3.25. Bestelako erabilera batzuk ezartzeko aukera ematea horien eskutik landa-eremuan gizarte-harremanak bultzatzeko eta gune txikietan bizi direnek beste inora joan beharrik ez izateko; adibidez, inguruko adinekoentzako laguntza-zentroak, saltoki txikiak, haurtzaindegia, etab.

3.26. Turismoari eta aisialdiari loturiko jarduerak ezartzeko aukera ematea, hala nola interpretazio-zentroak, landetxeak, jatetxeak, etab.

3.27. Baserria etxebizitza gehiagotan zatitzeko baimena ematea, gaur egun batere baimenik eta kontrolik gabe gertatzen ari dena arautzeko. Horretarako, beharrezkoa izango da aurrez azterketak egitea neurri horrek lurraldean eta ingurumenean izan dezakeen eragina aztertzeo, baita neurriaren beraren eraginkortasuna balioesteko ere.

3.28. Paisaia eta ondarea kontserbatzeko estrategiak ezartzea eta lursailen itxitura motak arautzea, ikuspegia ez mugatzeko.

3.29. Landa-eremuan lan egiteko gogoia izan baina baliabiderik ez duten pertsonen horretarako erraztasunak ematea.

3.30. Ondarea babesteko ordenantzak eta EAEko Kultur Ondareari buruzko Legea bateratzea.

3.31. EKEGean baserriak zaharberritzeko jasotzen den araua (106.7. artikulua) gaurkotzea eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen araubidera (30. art.) eta 105/2008 Dekretura (9.2 art.) egokitzea.

3.32. Baserrien jatorrizko bolumena handitzen ez uztea, eta, beraz, eraikitako azalera zabaltzeko baimenik ez ematea.

ALDERDI JURIDIKOEI BURUZKO MINTEGIA

ERRESERBEN HELBURUA

4.1. Ulertzeko moduko araudia lantzea, eta eraginkorra, kontserbaziorako helburuak finkatuko dituen, baita garapen iraunkorrerako estrategia berritzaileak ere, lurralde osorako eredugarri izan daitezkeenak.

4.2. Zonifikazioa biosfera-erreserben hiru eremu bereizgarrien definiziora egokitzea. Hauek dira hiru eremu horiek: nukleo, tanpoi eta trantsizio guneak.

b) Lurzoruaren eta zorupearen araudia eta kudeaketa

4.3. EKEGaren aplikazio-eremuak erreserba guztia hartzeko aukera aztertzea; hau da, hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarria ere planaren aplikazio-eremura biltzea.

4.4. Zorupe kontzeptua kudeaketa arloko erabakietan jasotzea, eta aintzat hartzea uraren gordailu, harrobi bihurtzeko baliabide eta arkeologia eta geologia aldetik intereseko eremu izan daitekeela.

DOKUMENTUEN ARTEKO KOORDINAZIOA

4.5. Araudi eta agiri guztiak (LPP, EKEG, Lurzoruaren Legea) lurraldearen antolamendurako ikuspegi orokor baten barruan koordinatzea eta bateratzea.

4.6. Erreserban diharduten administrazioen parte-hartzea modu eraginkorrean koordinatzea, baita esku hartzen duten beste erakunde batzuen ere.

4.7. Natura 2000 Sarea arautzen duten dekretu berriak EKEGean integratzea.

Gaur egun Urdaibaiko Babes Bereziko Eremuak eta KBEak bat datoz ia, ibai-sareko KBE izan ezik, hori Babes Eremua baita.

4.8. Urdaibaiko ibai-sarea nukleo kategoriara biltzea, eta, ahal dela, tanpoi-gune bat ere jasotzea.

4.9. Aurreko dokumentuaren ondoren sortutako legeak EKEGean jasotzea.

4.10. Kasu bakoitzean zein araudi lehenetsiko den argitzea.

4.11. Erraz interpretatzeko araudi berria egitea, eta malgua, *ideien laborategia* asmoarekin egiaz bat etorriko dena.

4.12. EKEGean zenbait aldaketa egiteko Urdaibaiko Legea aldatu beharko dela aintzat harturik, aldaketa horiek egiteko administrazioak zer printzipioren arabera jardun behar duen finkatzea.

d) Kudeaketa-organoa

4.13. Patronatuaren bidez Urdaibain esku hartzen duten administrazioak eta arloko politika ugariak koordinatzea.

4.14. Patronatuari gai batzuetan erabaki lotesleak hartzeko eskumena ematea.

4.15. Garrantzi txikiagoko zenbait gai zehaztea, udalek horien gain baimenak emateko eskumena izan dezaten.

4.16. Obrak gauzatzerakoan txostenak betetzen direla egiaztatzeko eta horien jarraipena egiteko bideak ezartzea.

4.17. Elkarre, udal eta bestelako organismoen parte-hartzea arautzea, baita batzorde teknikoaren eta kontseilu zientifikoaren partaidetza ere.

4.18. Trantsizio-guneetan jarduera ekonomikoaren garapena antolatzea: hondakinak, mugikortasuna, energia, etab.

4.19. Metodologia juridikoari eta prozedurari buruzko alderdiak modu zehatzagoan garatzea.